

A TXARTEL NAGUSIAREN TITULARRAREN/ESKATZAILEAREN NAHITAEZKO DATUAK

Izena _____ 1. abizena _____ 2. abizena _____ Jauna Andrea

IFZ/AIZ _____ Jaiotze-data _____ E. zibila _____ Seme/alaben kopurua _____

Ohiko bizilekua _____ Herria _____ P.K. _____

Probintzia _____ Tel. partikularra _____ Mugikorra _____ E-maila _____

Etxebizitza: Norberarena Norberarena, hipotekarekin (Kuota _____ Eroste-data _____)

Alokairuan (Hileko errenta _____ Hasiera-data _____) Bestelakoak

LANA ETA DIRU-SARRERAK

Lan-egoera: Besteren kontura Norberaren kontura (Autonomoetako alta-data _____)

Jubilatua (Jubilatze-data _____) Lanik gabe Bestelakoak

Enpresa _____ Lanbidea _____ Lanpostuko antzinasuna _____

Jarduera-sektorea _____ Urteko diru-sarrera garbiak _____

Kontratu-mota: Aldi baterakoa Finkoa

FINANTZA-DATUAK

Beste txartel edo mailegu batzuk:

Maileguak Erakundea _____ Kontsumoa Saldo bizia _____

Txartelak Erakundea _____ Kreditu-muga _____

B BALDINTZA PARTIKULARRAK

KREDITU MUGA:

Aukera ezazu hileko zer kreditu muga eskatu nahi duzun zure Tarjeta de Crédito Triodos txartelerako:

- | | | | |
|--------------------------|---------|-------------------------------------|-------------|
| <input type="checkbox"/> | 600 € | Ordainketa geroratua: TIN anual 12% | TAE: 25,86% |
| <input type="checkbox"/> | 1.200 € | Ordainketa geroratua: TIN anual 12% | TAE: 18,96% |
| <input type="checkbox"/> | 2.000 € | Ordainketa geroratua: TIN anual 12% | TAE: 16,38% |
| <input type="checkbox"/> | 3.000 € | Ordainketa geroratua: TIN anual 12% | TAE: 15,12% |
| <input type="checkbox"/> | 5.000 € | Ordainketa geroratua: TIN anual 12% | TAE: 14,13% |

DIRU-ERABILERAREN MUGAK:

Ondasun eta zerbitzuen erosketetako mugak:

- Egunekoa: Bat dator Tarjeta de Crédito Triodos txartelaren zure kontratuko kreditu mugarekin.

Eskudirua ateratzeko mugak, berdin diolarik ea lotutako kontuko saldoa zenbateko handiagoa den:

- Egunekoa: 600 €.

Muga horietakoren bat aldatu nahi baduzu, 902 360 940 edo 91 640 46 84 telefonoetara deituta eska dezakezu, edo gure bulegoetako edozeinetara etorrira.

ORDAINTZEKO MODUA:

Ordaintzeko modu bakarra aukera ezazu zure Tarjeta de Crédito Triodos txartelerako:

- ESKURA (hilaren bukaeran ordaintzea, interesik gabe)
- GERORATUA Erabilitako kopuruak hilero ordaintzeko modu hauen artean aukera dezakezu:
- Geroratu finkoa _____ € (gutxienez 60 €, gehienez 600 €). Aukeratutako kuotan sartuta egongo da kapital amortizatua gehi sortutako interes eta komisioak.
- Ehuneko-geroratu _____ % (gutxienez % 10, gehienez % 30; bi ehuneko horiek likidazio egunean erabilita dagoen saldoaren gainean kalkulatzen dira) Hileko kuota kalkulatzeko, txartelaren saldo erabiliaren gainean aukeratutako ehuneko aplikatuta ateratzen den zenbatekoari, sortutako interes eta komisioak batzen zaizkio. Ateratzen den kuota ezingo da izan 60 eurotik beherakoa, ez eta 600 eurotik gorakoa ere.

KOMISIOAK

- Kutzazainean eskudirua ateratzearen komisioa:
 - Triodos Bank kutxazaina: % 2,00, gutxienez 3,00 €
 - Estatuko sareko kutxazaina: gehienez ere, kutxazainaren jabe den erakundeak ezarritako komisioa gehi % 2,00, Gutxienez 3,00 €.
- Estatuko beste kreditu erakunde batzuen Espainiako edo atzerriko bulego batean dirua ateratzearen komisioa: % 4,00, gutxienez 3,00 €
- Bankuan norberaren kontura dirua intsuldatzearen komisioa: % 2,00, gutxienez 2,00 €
- Aurretiaz amortizatzearen komisioa: % 0,00, gutxienez 0,00 €
- Gaindituaren komisioa: ez dago erabilgarri
- Ordaindugabea erreklatzearen komisioa: 30,00 €
- Dibisetako eragiketen komisioa: 0,00 €
- Ordainketa geroratzearen komisioa: 0,00 €
- Jaulkitzearen komisioa: 34,00 €
- Mantentzearen komisioa: 34,00 €
- Txartelaren kopia egitearen komisioa: 8,00 €

El Banco podrá repercutir al titular los gastos de correo, teléfono, SMS, télex, telefax o similares que se ocasionen como consecuencia del presente Contrato, según los importes que aparecen desglosados en el Libro de Tarifas

Tipo de interés de demora: 12 %

C ADIERAZ EZAZU ZURE TRIODOS BANK N.V. KONTU KORRONTEA (kontu elkartua)

Zure Triodos kreditu-txartelarekin egiten dituzun eragiketa guztien zenbatekoa (erosketak eta kutxazainetan eskudirua ateratzea) zuk adierazitako Triodos kontu korrantean kargatuko da:

Letra país D.C. Entidad Oficina D.C. Nº Cuenta
ES 1 4 9 1 0 0 0 1

Txartel gehigarriaren onuraduna, kontu honetarako, hau izango da: titularra baimendua ez du esku hartzen

D ZER GERTATUKO DEN ZURE TXARTEL ESKAERA ONARTUTAKOAN

Tarjeta de Crédito Triodos txartelaren eskaera onartutakoan,

1. Eskaera honek kontratu izaera hartuko du, eta, Triodos kontratu orokorrekin batera, titularraren eta Triodos Banken arteko harremanak arautuko ditu, Tarjeta de Crédito Triodos txartelari dagokion guztian.
2. Zure Tarjeta de Crédito Triodos txartela bidaliko dizugu.
3. Zure zenbaki sekretua (PIN) lortzeko, bide hauetako edozein erabil dezakezu: Banca Internet, Banca Telefónica edo bulegoak.

Gogoan izan: txartela aktibatzeak esan nahi du titularrak onartzen dituela kontratu honetan ezarritako baldintzak, eta aktibatzeke unean ezartzen direnak.

E NAHITAEZKO KLAUSULA**KONTRATU GLOBALARI ETA PRODUKTUARI BURUZKO ADOSTASUN ETA ONARTZE KLAUSULA**

Dokumentu honen bitartez, sinatzaileak/sinatzaileek, norberaren izenean, ala ordezkatzeko duen/duten entitatearen izenean ala haien legezko ordezkari edo ahaldun gisa, ondorengo adierazten du/dute:

((1) Triodos Banki eman dizkion/dizkioten bere/beren datu pertsonalak egiazkoak eta zehatzak direla; (2) adinduna/k dela/direla; (3) onesten duela/dutela (a) adingabearen/adingabeen datuak trata daitezela, bai eta bere/beren datu pertsonalak tratatzea ere, Triodos Bank N.V. S.E. Kontratu Globaleko datu pertsonalen babesari buruzko klausulan adierazitakoari Kontratu berean jasotakoa, (4) alde aurretik nahikoa denborarekin jaso dute eta onartzen dute indarrean dagoen Triodos Bank N.V. S.E. Kontratu Globala; kontratu horretan sartuta daude Triodos Bank N.V. S.E.ren baldintza orokorrak eta produktu eta zerbitzuen baldintza orokorrak, eta bereziki datu pertsonalen babesari buruzko klausula, telefonozko elkarrizketak grabatzeari buruzko klausula, eta sarrera gakoetarako, telefono bidezko eragiketarako eta Internet bidezko eragiketarako segurtasun arauak; (5) onartzen dituela/dituztela kontratatutako produktuaren/produktuen baldintza partikularrak eta finantza baldintzak; (6) jaso duela/dutela Tarifen, Komisioen, Gastuen Balioztapen Arauen eta Iragarki Taularen Liburuaren ale bat. (7) Triodos Bank N.V. S.E.ren produktuak urrutitik kontratatu nahi izanez egonez gero (bide elektronikoz edo papereko postaz), adierazten du/dute www.triodos.es webgunean euskarri iraunkorrean eskuragarri dagoen gure produktuei buruzko informazioa alde aurretik nahikoa denborarekin ezagutu ahal izan dutela, bai eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren bitartez gatazkak konpontzeko sistemari, zenbait produktu kontratatu ondorengo 14 egunean Bankura zuzendutako idatzizko komunikazio baten bidez uko egiteko eskubidea erabiltzeko aukerari, Herbehereetako Banku Zentralak araututako gordailuen berme sistemaren existentziari, eta ordainaraz dakizkiokeen/dakizkiekeen komisio eta gastuen existentziari (horiek ere beti eskuragarri daude, 902 360 940 telefonoaren edo www.triodos.es webgunearen bidez idatzizko informazioa eskatuz) buruzko informazioa ere. (8) Dokumentu hau eskuz idatzitako sinadura elektronikoz edo eskuz idatzitako sinadura digitalizatuz izenpetu baldin bada, adierazten dut egiaztatu eta baliozkotu dudala sinaduraren zuzentasuna, eta neuretzat onartzen dudala; eta baimentzen dut bitarteko elektronikoak edo telefonozkoak erabiltzea, kontratazio prozesua behar bezala osatzeko. Hala sinatutako kontratu eta dokumentuak banketxeak gordeko ditu, aplikatzeko den legedian zehaztutakoari jarraituz aski bermerekin. Ez baduzu nahi zure datuak tratatzerik, bidal ezazu zure eskaera aurreko (3) atalean adierazitako helbideetara, edo marka itzazu ondorengo lauki hauek:

LAN DATUAK EGIAZTATZEA

Titularrak/titularrak jaso du/dute Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsalarengandik informazio hau: kapitalak zuritzea prebenitzeari buruz indarrean den legediari jarraituz, banketxeek beren bezeroengandik eskuratu behar dute bezero horien ekonomia jarduerari buruzko informazioa, eta informazio hori egiaztatu. Emandako informazioa egiaztatzeko helburu bakar horrekin, berariazko adostasuna ematen diot/diogu Triodos Bank NV S.E. konpainiari, nire/gure izenean Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari informazio hori eskatu ahal izan dakion. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrerik lortutako datuak, aurrez adierazitako kudeaketarako beste ezertarako ez dira erabiliko. Finantza erakundeak edo erakunde horretan zerbitzu egiten duten langileek betebeharrak betetzen ez badute, 1999ko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteko Legea) ezarritako jarduketa guztiak egikarituko dira.

GARDENTASUNA, AURRETIKO INFORMAZIOA ETA KONTRATUZ AURREKO INFORMAZIOA

Titularrak edo titularrak adierazten dute Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsalak eman dizkiela eta eskura jarri dizkiela, indarrean den araudia betez, esplikazio egokiak eta nahikoak, eskainitako banku zerbitzuaren funtsezko baldintzak ulertzeko (ordainketa zerbitzuenak barne, halakorik kontratatuz gero). Kontratatu aurretik garaiz jaso dutela aurretiko eta kontratuz aurreko informazioa (besteak beste, gordailugileei eman beharreko informazio inprimakia, gordailuen estaldurari buruzkoa), bai eta kontratatutako finantza produktuaren sailkapenari buruzko informazioa ere, ECC/2316/2015 Aginduekin bat etorrira, eta kontratua egiteak titularrarentzat edo titularrarentzat izan ditzakeen ondorioen adierazpena. Horrela, erabaki informatua hartu ahalko dute, beren beharrak eta beren finantza egoera kontuan hartuta. Emandako informazio horretan sartuta dago badagoela 1. eranskina («Pertsona fisikoak diren bezero profil arruntetik eragiketa ohikoenetan gehien praktikatutako edo eskaini ohi diren komisio eta tasei buruzko hiruhilekoko informazioa»), zein den haren edukia, eta non kontsulta dezaketen.

ZERGA EGOITZAREN ADIERAZPENA, ETA DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA AURKEZTEKO KONPROMISOA

Dokumentu honen bitartez, titularra naizen honek (edo titularrak garenok, bat baino gehiago izanez gero) neure ardurapean adierazten dut zerga egoitza adierazitako herrialde edo lurraldean dudala soilik, eta egoera aldatuz gero hitzmaten dut banketxeari jakinaraziko diodala 30 eguneko epean. Horretarako, zerga-egoitzaren adierazpen eguneratua aurkeztuko dut, bai eta banketxeak eskatutako dokumentazioa ere, unean-unean aplikagarri den araudiari jarraituz. Eskatutako dokumentuak adierazitako epean ez aurkezteak ekar dezake, Tributuen Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituz, banketxeak ez egitea karguak, abonak, ez eta edonolako eragiketarik ere, harik eta benetan aurkezten diren arte; edo are produktuak ezeztatzea ekar dezake, baldin justifikaziorik gabe dokumentuak entregatzeari uko egiten bazaio.

INFORMAZIOA BIDALTZEA

Zure Triodos produktuari buruzko informazioa beti eskuragarri izango duzu Banca Internet zerbitzuan (www.triodos.es). Komunikazioak eta informazio bidalketa oro har bide elektronikoz egingo dira, gordetzea eta berreskuratzea ahalbidetzen duten euskarri iraunkorretan. Informazio hori paperean bidaltzea eska dezakezu, 902 360 940 telefonora deituta (posta gastuei dagokien zenbatekoa, indarrean diren posta tarifen arabera ezarriko da). Kontsultaren bat egin nahi baduzu edo argibideak nahi badituzu, zure zerbitzura duzu Triodos Bankeko profesionalen taldea. Dei iezaguzu 902 360 940 telefonora.

F SINATU HEMEN

Gogoan izan txartela egiaz ematea eta, hala egokituz gero, erabilgarri dauden kreditu mugak, aldez aurretik titularraren kaudimen ekonomikoa eta zorpetze gaitasuna aztertu eta ebaluatzearen mende daudela, bai eta bankuaren erabaki organoek eragiketa onartzearen mende ere. Horretarako, bankuan jaso beharko dira eskatutako dokumentu guztiak.

Eskatzaileak adierazten du jaso duela dokumentu honen kopia —dela paperean, dela berak aukeratutako komunikazio elektronikoen bidezko euskarri iraunkorrean—, eta berariaz eskatzen du kontratuaren kopia bidal diezaiotela www.triodos.es webgunean duen buzoi pertsonalera.

V1SCTCPFEUK_06/17 bertsioko dokumentu hau 8 orrialdekoa da, eta orrialde bakoitzean ageri da zenbakia eta bertsioa, behar bezala identifikatzearren. Dokumentua sinatuz, eskatzaileak berariaz onartzen du orrialde guzti-guztien edukia.

Data: 20____(e)ko _____ren _____a

Titularraren sinadura _____ Onuradunaren sinadura _____

Triodos Bank NV S.E.



Mikel García-Prieto
Zuzendari Nagusia

TARJETA DE CRÉDITO TRIODOS TXARTELAREN KONTRATURAKO BALDINTZA OROKORRAK

1. REGULACIÓN. En caso de aprobación, la presente solicitud tendrá carácter contractual y Tarjeta se registrará por las Condiciones Particulares y Generales estable1. ARAUTZEA. Onartuz gero, eskaera honek kontratu izaera izango du, eta txartela kontratu honetan ezarritako baldintza partikular eta orokorrek arautuko dute, bai eta indarrean den Triodos Kontratu Orokoretik aplikagarri denak ere. Txartelaren jaulkitzailea Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsala da (aurrerantzean, «Triodos Bank» edo «bankua»); W0032597G identifikazio fiskaleko kodea du; sozietate helbide hau du: C/ José Echegaray, 5, Parque Empresarial Las Rozas, 28232 Las Rozas, Madrid; Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago: 19.798 liburukia, 0 liburua, 180. folioa, 8. atala, M-348646 orria, 1. inskripzioa; Espainiako Bankuaren ardurapean dagoen Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, 1491 zenbakiarekin. Triodos Bank banketxea Triodos Bank NV sozietate anonimoaren Espainiako sukurtsala da. Sozietate anonimo hori herbeheretar nazionalitatekoa da (sozietate egoitza: Nieuweoordweg 1, P. P. Box 55, 3700 AB Zeist, Herbehereak), baimenduta eta erregistratuta dago Herbehereetako Banku Zentralean, eta erregistratuta dago Utrecht hiriko Merkataritza Ganberan, 30062415 zenbakiarekin. Triodos Banken jarduna Espainiako Bankuak (C/ Alcalá, 48, 28014 Madrid) gainbegiratzen du —likidezia, gardentasun eta interes orokorreko gaietan—, bai eta Baloreen Merkaturako Espainiako Batzordeak (www.cnmv.es) eta Herbehereetako Banku Zentralak ere.

Bankuak, txartelak jaulkitzean, estatuko edo nazioarteko ordainketa sistemetako kide den edo haiei atxikita dagoen erakundetzat jaulkitzen ditu, eta Estatuko nahiz nazioarteko ordainketa sistema edo erakunde horien arauen pean dago. Horrenbestez, txartelen erabilera ordainketa sistema horiek unean-unean ezarrita dutenaren pean dago. Titularra pertsona juridikoa baldin bada edo, bestela, bere eremu partikularretik at edo bere merkataritza, enpresa nahiz lanbide jardueraren barnean berridazten pertsona fisikoa bada, alderdiek hitzartu dute, Ordainketa Zerbitzuen Legea (16/2009 Legea, 2009ko azaroaren 13koa) 17. eta 23. artikuluetan jasotako aukerako araubideari jarraituz, kontratu honi ez zaizkiola aplikagarri lege horretako III. titulua eta 24.1, 25.1 (lehen paragrafoko azken tartekia), 30, 32, 33, 34, 37 eta 45. artikulua, eta horiek aldatu edo garatzen dituzten erregelamenduak. Hitzartu dute, orobat, ez direla aplikagarri 2011ko urriaren 28ko EHA/2899/2011 Agindua (gardentasunari eta banku zerbitzuen erabiltzailea babesteari buruzkoa), III. tituluko II. kapituluaren ezarritakoa izan ezik, eta hura garatzen duen Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra (kreditu entitateei eta ordainketa zerbitzuen hornitzaileei igorria, banku zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateak dakarren erantzukizunari buruzkoa), hamahirugarren arautik hamabosgarrenenaino ezarritakoa izan ezik. Ordainketa zerbitzuei aplikagarri zaizkien baldintza gardentasunari eta informazio betekizunei buruzko 2010eko ekainaren 14ko EHA/1608/2010 aginduan ezarritakoari jarraituz, alderdiek hitzartu dute ez dela aplikagarri izango agindu hori, ez eta aurrez aipatutako arau horiek garatzeko beste edozein arau ere. Titularrak eskubidea izango du txartelari aplikagarri zaizkien kontratu baldintzak edonoz jasotzeko, hogeita batgarren klausulan ezarritakoari jarraituz.

2. JAULKIPENA ETA TITULARTASUNA. Txartela bankuaren jabetzakoa da, eta izaera pertsonak eta besterenezinarekin jaulkiko da pertsona fisiko titular baten izenean. Titular horren izenak agertu beharko du erregistratuta haren titulartasuneko txartelean (aurrerantzean, «txartela») bertan. Titularrak, era berean, Triodos kontu korronte elkartua baten («kontu elkartua») titular izan beharko du, eta kontu horretan egingo dira kontratu honetatik eratorritako karguak. Bankuak bere esku gordetzen du txarteln honen jaulkipena —eta, hala egokituz gero, berritzea— onartzeko beharrezko betekizun eta bermeak ezartzeko eskubidea. Bankuari aurrez eskatuta eta bankuak adostasuna emanda, titularrak berak izendatutako beste pertsona baten edo batzuen (onuradunak) izenean txartel gehigarriak jaulkitzea lortu ahalko du. Kontratu honetako baldintzek arautuko dituzte txartel gehigarri horiek. Titularrak bere gain hartzen du onuradunek txartel gehigarriak egoki erabiltzearen ardura. Txartel gehigarriek titularraren txartelaren kontu elkartu bera izango dute. Beraz, titularrak berariaz onartzen ditu txartel gehigarriekin egiten diren eskudiru ateratzeengatik eta transakzioengatik bankuak kontu elkartuan egiten dituen karguak. Txartela eta txartel gehigarriak (elkarrekin, «txartelak») titularraren eta —halakorik bada— onuradunen eskura jarriko dira, eskura emanez edo postaz bidaliz, bai hasierako jaulkipenean, bai ondorengo berritzeetan.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA TXARTELEN IRAUNGIPENA. Kontratu honek iraupen mugagabea du. Hala ere, txartelak balioaldi mugatua izango dute, txartelean inprimatuta ageri den hilabeteko azken eguneraino. Alderdietako edozeinek kontratua suntsiarazi ahalko du edonoz, beste alderdiari jakinarazita, kontratu honetako 21. klausulan adierazitakoari jarraituz. Suntsiarazpena gauzatzen den eguna baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago jakinarazi beharko dio, bankuak suntsiarazten badu; eta 24 ordu, titularrak eskatuta suntsiarazten bada. Titularrak eta onuradunek, suntsiarazpena eraginkor bihurtzen den egunean, txartelak bankuari itzuli beharko dizkiote edo birrindu beharko dituzte. Egun hori baino geroago itzultzen edo birrintzen badira, haien kargura egingo dira, itzuli edo birrindu arte, txartel horiekin egiten diren transakzioak. kontratua bukatzean, bezeroak egun horretan dagoen zorraren zenbatekoa itzuli beharko du, ordaintzeke dauden komisio eta gastuekin batera. Titularrak betebeharrak horiek betetakoan, kontratua iraungita geratuko da.

Txartelaren titularrak kontu elkartua itxi nahi badu, aldi berean txartelak itzuli beharko ditu, eta bankuari itzuli beharko dizkio ordaintzeke dagoen zorraren zenbatekoa (halakorik baldin bada) eta eginda edo ordaintzeke dauden gastuak. Txartelak eta dirua itzultitakoan, kontratua iraungita geratuko da, eta kontu elkartua itxi ahalko da.

4. ERAGIKETAK. Bankuaren txartelekin ordainketa zerbitzu hauek egin ahalko dira: txartela onartzen den estatuko edo nazioarteko establezimenduetan ondasunak edo zerbitzuak erostea; dirua ateratzea, bankuak horretarako akordioak dituen kreditu erakundeen kutxazain automatikoen bidez; eta titularraren eta onuradunen eskura jarrita dauden edo jartzen diren beste zerbitzu batzuk gozatzea. Txartelen eragiketa guztiak kontabilitateko kontu batean (txartelaren kontua) erregistratuko dira. Hor erregistratuko da eragiketa bakoitzaren zenbatekoa, amortizatzen den arte.

5. IDENTIFIKAZIO ZENBAKI PERTSONALA. Kutxazain automatikoetan erabilgarri dauden eragiketarako edozein egiteko, bankuak titularrari eta onuradunari identifikazio zenbaki pertsonal bat (PIN) jakinaraziko die, txarteleko bakoitzerako. PINa pertsonala eta besterenezina da (ezin zaie hirugarrenei jakinarazi), eta titularrak nahiz onuradunek aldatu ahalko dute, bankuak ezarritako sistemari jarraituz.

6. TITULARRAREN BETEBEHARRAK. Titularrak betebeharrak hauek ditu:

a) Kontratu honen babesean egindako txarteletako edozeinekin egindako eragiketa guztiak onartzea.

b) Eragiketen eta haien zenbatekoaren frogarritzat onartzea txarteleko edozeinek erregistratutakoa, bankuaren erregistro informatikoetan eta txartelekin eragiketak egiteko gaitutako edozein gailuk jaulkitako egiaztagirietan ageri dena, baldin eragiketak txartelaren titularrak berak, txartel gehigarri titular diren onuradunek edo aurreko horietakoren baten baimena duten hirugarrenek egin badituzte.

c) Bankuari jakinaraztea titularrak edo txartelen onuradunek baimendu gabeko edozein transakzioaren kargua, bai eta txartelen funtzionamenduan atzemandako edozein akats edo irregulartasun, bankuak behar bezala zuzen dezan. Horretarako, titularrak berandutze desegokirik gabe egin beharko du jakinarazpen hori, baimendu gabeko karguaren edo behar ez bezala egindako eragiketaren berri dakien bezain laster, eta betiere kargu edo eragiketa horren egunetik hamahiru (13) hilabete igaro baino lehen jakinarazi beharko du, baldin bankuak haren eskura jarri badu horretarako informazioa.

d) Txartelaren segurtasuna bermatzeko (txartelaren galera, lapurreta edo faltsutzea saihestea) eta hura erabiltzeko prozeduraren segurtasuna bermatzeko (bereziki, PINa isilpean gordetzea eta txartela sinatzea) beharrezko arretaz jokatzeko. Bereziki, contactless teknologia («kontakturik gabeko teknologia» edo «kontakturik gabeko ordainketak») duten txartelei dagokienez, haiek erabiltzea posible baita, ezartzen diren baldintzetan, txartelaren titularraren identifikazio pertsonalerako bitartekorik sartu beharrik gabe, zorrotz zaindu behar da txartela.

e) Txartelaren galera, lapurreta edo faltsutzea eta PINa norberaren borondatearen kontra beste inork jakitea, berandutze desegokirik gabe jakinaraztea, horren berri izan bezain laster. Jakinarazpen hori bankuaren edozein bulegotan egingo da, edo txartelean horretarako ageri den 902 171 272 telefonora deituta.

Abisu hori, gero, urgentziaz baieztatuz beharko da posta ziurtatuz edo bankuaren edozein bulegotara etorrira horretarako dokumentua sinatuz.

f) Bankuaren txartela itzultzea edo birrintzea, txartela iraungi denean edo ordeztu denean, eta txartela nahiz kontu elkartua blokeatuta edo ezeztatuta geratzen direnean, edozein dela ere kausa.

g) Oro har, ondasunak erosteko eta atxikitako establezimenduetan txartelak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko, titularrak hau egin behar du: i) txartela aurkeztu, eta establezimenduak egindako faktura sinatu edo PIN zenbakia teklatu (egindako eragiketarekin guztiz ados egotea dakar horrek); eta ii) dagokien eragiketa gauzatzearren txartela aurkeztean bere nortasuna egiaztatzea. Triodos Bankek contactless («kontakturik gabeko teknologia» edo «kontakturik gabeko ordainketak»), teknologiazko txartelik jaulkituz gero, alderdiek onartzen dute haien titularraren sinadura autografoaren berdina izango dela, juridikoki, titularrak txartela hurbiltzea kutxazain automatikoetara, saltokiko terminala edo beste kobrantza tresna batzuetara, transakzioa egin dadin. Banca Telefónica edo Banca Internet zerbitzuen bidez egindako eragiketen kasuan, titularrak jarraitu egin beharko die bankuak unean-unean titularraren esku jartzen dituen segurtasun

sun, identifikazio eta autentifikazio prozedurei.

Hala ere, Triodos Bankek eskatu ahaliko ditu titularraren sinadura autografoa, txartelaren gako sekretua (PINa) sartzea, edota hitzartutako beste edozein identifikazio sistema, une bakoitzean eta herrialde bakoitzean contactless teknologiako txartelak erabiltzeari buruz indarrean diren baldintza espezifikoari jarraituz. Eta, betiere, segurtasun arrazoiengatik, txartela erabiltzen ari den titularrak identifikatzeko aurreko bitarteko horietako edozein exijitu ahaliko du bankuak. Era berean, txartelaren titularrak onartzen ditu contactless teknologiako txartelen bidez egindako eragiketa guztiak, bankuak txartelaren titularrak identifikatzeko bitartekorik eskatu gabe egin direnak.

h) Ordaintzeko betebeharrak. Titularrak obligatua da bankuari ordaintzera edozein kontzeptuengatik zor dizkion kopuru guztiak, txartelak jaulki eta erabiltzetik eratorriak, kontratu honen pean ezarritakoari jarraituz. Halaber, titularrak txartelari dagokionez dituen betebeharren artean, aurreko d) ataleko g) ataleraino (biak barne) bitartean aipatutakoak onuraduneri ere aplikagarri izango zaizkie (onuradunetik baldin bada), txartel gehigarri dagokienez.

i) Une oro bankuan aski diru izatea, kontratu honetatik eratorritako ordainketa erantzukizunak estaltzeko. Bankuak beretzat gordetzen du txartelaren kontratazioa, haren ondorengo ondoko berritzeak edo kontratuaren suntsiarazpena ondorengo hauek betetzearen baldintzapean jartzea: ezartzen diren betebeharren berme eskakizunak, bezeroak bankuan gordailututako funtsak behar adina izaten irautea, edo emandako kreditua estaltzeko behar adinako bermeak izatea ahalbidetzeko bestelako eskakizunak.

j) Txartelaren mugimenduak kontsultatzea aldian-aldian, gutxienez hilean behin, eta zenbatekoaren edo ezaugarrien aldetik titularrak —edo, halakorik bada, onuradunek— egin ohi dituzten eragiketekin bat ez datozen karguak ikusten diren aldiro.

k) Espainiako lurralde osoan aktibo dagoen telefono mugikorrek zorbaki baten titular izatea, kontratu honen mantentze egokirako beharrezko zerbitzuak jasotzearen; bereziki, txartelarekin egindako eragiketei buruzko alertak eta txartelaren kudeaketari lotutako edozein komunikazio edo mezua.

Titularrak prestasunik handienaz eta lehenbailehen jakinaraziko dio bankuari zorbaki horri loturiko edozein gorabehera, baldin txartelaren erabilera egokia arriskuan jarri badezake.

7. ERANTZUKIZUNETATIK SALBUESTEAK

a) Titularrak salbuetsita dago edozein erantzukizunetatik, txartelen eta PINaren erabilera desegokia dela eta, seigarren baldintzari jarraituz txartelen galera, lapurreta edo faltsutzea jakinarazi duen unetik, edo PIN hori beste inork badakiela jakinarazten duenetik, baldin titularrari dolua edo errua egotz ez badakioke.

b) Bankua —egoki deritzen neurriak hartzeaz gainera— erantzukizunetik salbuetsita geratzen da, baldin ondasunak saltzera edo zerbitzuak egitera hitzartutako saltoki, banku edo kutxetakoaren batek txartelak edozein arreta jartzen ez badio, edo baldin konektatuta dagoen baina bere sarekoak ez diren kutxazain automatikoetan gorabehera teknikoak edo operatiboak izanez gero, salbu eta bankuaren dolua edo errua izan bada.

c) Bankua, orobat, at geratuko da establezimenduaren eta txartelaren titularraren edo (halakorik bada) txartel gehigarrien onuradunen artean egindako eragiketarik eratorritako gorabehera eta erantzukizunetatik.

d) Titularrak txartelak egoki erabili eta kontserbatzearen arduraduna da. Aurrekoaz gainera, titularrak edo onuradunek duten erantzukizuna, txartelaren galera edo lapurreta gertatuz gero hirugarrenek txartela iruzurrez erabili badute, mugatuta geratuko da berrogeita hamar (50) eurora, salbu eta titularraren edo onuradunaren dolua, errua edo zabarkeria baldin badago artean.

e) Bankua ez da erantzule izango baldin bere arazoizko kontrolatik kanpoko inguruabar salbuespeneko eta ezin aurreikusizkoak izanez gero, baldin haien ondorioak saihetsezinak izango balira kontrako ahalegin guztiak eginda ere.

Banca Telefónica zerbitzuaren bidez egindako eragiketen frogabidetzat, titularrak eta —halakorik izanez gero— onuradunak edo onuradunek baimena ematen diote bankuari, telefono elkarrizketa eta komunikazio elektronikoko guztien erregistroa mantentzean eta horren euskarri magnetikoa gorde dezan.

Hala ere, Triodos Bank NV, S.E. izango da erantzule, txartelaren titularraren aurrean, ordainketa eragiketa egokiro gauzatzeko, harik eta haren zenbatekoa onuradunaren ordainketa zerbitzuaren hornitzailearen kontuan ordaintzen den arte. Triodos Bank NV, S.E. banketxeari egotea den kausarengatik gauzatu ez diren edo akatsarekin gauzatu diren ordainketa eragiketen kasuan, banketxe horrek arazoirik gabeko atzerapenik gabe itzuliko du eragiketari dagokion kopurua; eta, hala badagokio, ordainketa eragiketa akastuna egin izan ez balitz egon beharko lukeen lehenagoko egoerara berrezarriko du ordainketa kontuaren saldoa.

8. TXARTELAREN MUGAK. Kontratu honen babesean kontratatutako txartelak bakoitzak diru erabilera eragiketa muga batzuk ditu adierazita. Muga horien zenbatekoak ez dira gaituzte behar. Muga horiek baldintza partikularretako «Diru erabilera muga» atalean adierazita daude. Kreditu muga hori alda dezake bankuak, aurrez titularraren kaudimen baldintzak ebaluatuta, eta kontratu honetan ezarritakoarekin bat etorritako. Lehenago, titularrari jakinarazi beharko dio, 17. baldintza ezarritako prozedurari jarraituz. Titularrak eskatutako kreditu muga hasieran emandakoa baino handiagoa denetan, erantzukizunaren handitzea estaltzeko behar den berme handitzea eskatu ahaliko du bankuak.

Egindako eragiketengatik kontuan dagoen zorra titularrak amortizatzen duen neurrian, saldo erabilgarria berrezarriko da. Titularrak bankuari baimena ematen dio, egindako transakzioetatik eratorritako ordainketei erantzun diezaien, baita emandako kreditu muga gaituzte bada ere. Kreditu mugatik gaituzte edo kreditu muga horren barruan zor den kopururik baldin bada eta behar zen ordainketa egunean pagatu ez badira, ez da ordainketa geroratuaren aukerarik izango kreditu muga gaituzte duen edo behar zen egunean ordaindu gabe dagoen zenbatekoari dagokionez, salbu eta alderdien arteko akordioak baldin bada. Zenbateko hori bankuak gaituzteko du gaituzte berri duen unetik, eta osorik ordaindu beharko da hurrengo ordainketa egunean. Halakoetan, baldintza partikularretan ezarritako komisioa aplikatuko zaio titularrari (txartelean gaituztekoagatik edo ordainagiri ordaindugabeagatik). Komisio hori kontuan kargatuko da kreditu mugatik gaituztekoan edo ordainagiri ez ordaindutakoan, eta zorra ordaintzea lortzearen bankuak titularrarekin kudeaketa pertsonalizatuak egin eta gero. Kutxazain automatikoetatik eskudirua ateratzeko, titularrak edo onuradunek ezin gaituzteko dute eguneko muga eraginkortzat ezarritako gehieneko zenbatekoa. Zenbateko hori zein den baldintza partikularretan ezartzen da.

9. DIRU ITZULKETA. Unean-unean erabili den saldotzat definitzen da. Hauen arteko batura barne hartzen du: (i) itzultzeke dauden eragiketak, gehi (ii) ordaintzeke dauden komisio eta interesak. Titularrak saldo erabiltzat bankuari zor dizkion kopuruak, bankuak hileren haren esku jartzen duen laburpenean islatuak, kargu egunean, eta horrek lehenengo enpresa-hilero eguna izango da, ordainduko dira, egindako eragiketak likidatzeko unean bankuak aukeran jarritako ordainketa sistemen artean titularrak edo haren onuradunek aukeratutako sistemari jarraituz. Ondorengo sistema hauetako bat izango da:

a) Eskudirutan ordaintzeko sistema. Horren bitartez, titularrak zenbateko osoa ordaintzen du hitzartutako kargu egunean.

b) Gerorata ordaintzeko sistema. Horren bitartez, titularrak zorraren ordainketa osoa edo zati bat geroratzen du, eta aldian-aldian amortizatzen du, ondorengo hauen artean aukeratu duen modalitateari jarraituz, eta kontratu honetako baldintza partikularretan finkatutako hileroko gutxieneko eta gehieneko zenbatekoekin:

(i) dela erabilitako saldoaren ehuneko jakin bat ordaintzea (geroratu ehuneko). Bankuak hileroko kargu bat egingo du. Kargu horretan sartuta daude, erabilitako saldoari hitzartutako ehuneko aplikatuz ateratzen den zenbatekoarekin batera, hilean sortutako interes eta komisioak.

(ii) dela hileroko zenbateko finkotzat (geroratu finkoa). Hilero kontu elkartuan zorpertuko da hitzartutako zenbateko finkoa. Zenbateko horretan sartuta egongo dira hil horretan sortutako interes eta komisioak.

(iii) bankuak establezimenduen hitzartzen duen erosketara sistema pertsonalizatua erabiliz. Horren bitartez, titularrak erosketara eragiketa bakoitzerako aukeratu ahaliko du egin nahi duen ordainketaren geroratzea.

Ordainketa geroratuaren zerbitzua erabiltzeak geroratze interesak sortuko ditu bankuaren alde, baldintza partikularretan hitzartutako tasa nominalen. Kopuru geroratuen interesak hileren amaieran likidatzen dira, eta formula honekin kalkulatu dira: $\text{Interesak} = \text{cd} \times \text{n} \times \text{i} / 3000$, non «cd» kopurua geroratu zaien eragiketetan ordaintzeke dagoen saldoa baita; «n» 31 baita; eta «i» aplikatu beharreko hileroko interes tasa baita, bateko hainbatean. Ordaintzeke dagoen zorra —bankuak eskura jarritako laburpenean hileroko islatua— ordaintzeko bere betebeharrak bete dezan, titularrak diru kopuru egokia izan beharko du kontuan, zenbateko zorpertzearen laburpenean adierazitako muga eguna baino lehen. Bankuak titularrari eman ahaliko dizkio erabilitako kreditua ordaintzeko geroratzeak, une jakin batzuetan eta aldi zehaztuetakoa. Gainera, kopuru horiek interesak sortuko dituzte, hitzartutako tasan, ordainketa geroratzeak irauten duen aldiari; bai eta baldintza partikularretan ordainketa geroratzerako ezarritako komisioa ere. Aipatu geroratzeak ondorengo baldintza hauek aplikatuz finkatuko dira:

a) Interesen likidazioa kontratu honetan ezarritakoari jarraituz egingo da, eta haren ordainketa hitzartuari jarraituz dagokion lehen hilean gauzatuko da; edo, bestela, emandako ordainketa geroratzearen aldia bukatutakoan.

b) Titularrak egunean izan beharko ditu kontratu honen arabera dagozkion ordainketak, likidazioak egiteko unean.

c) Geroratzearen aldiaren amortizatu beharreko saldo erabiliaren zenbatekoa amortizatu gabekotzat mantentzen da, eta, beraz, kontuan hartuko da hurrengo likidazioan.

Gainera, titularrak zor duen zenbatekoa edonoz aurrez itzuli ahal du, osorik edo zati batean. Halakoetan, eskubidea izango du kredituaren kostu osoa murriztea, oraindik igaro ez den kontratualdia dagozkion interesak eta kostuak barne hartuta, baita horiek dagoeneko ordaindu badira ere. Amortizazio aurreratu hori egiteko, titularrak bere asmoa jakinarazi beharko dio banketxeari, 21. klausulan adierazitako bitartekoak erabiliz, bankuak jakinaraz diezaion dirua itzultzeko jarraitu beharreko urratsak. Aldez aurreko diru itzulketa eginda, eta kredituaren bizialdi osoan, titularrak eskubidea du dohainik eskatzea kontu laburpen bat, amortizazio koadroaren erakoa.

10. URTEKO TASA BALIOKIDEA (UTB). Titularra kontsumitzaile bat den kreditu txartelen kasuan, urteko tasa baliokidea kalkulatzeko erabili da Kontsumorako Kredituko Kontratuen Legeko (16/2011 Legea, 2011ko ekainaren 24koa; BOE, 151. zenbakia) I. eranskineko 32. artikuluan jasotako formula; eta Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra (kreditu entitateei eta ordainketa zerbitzuen hornitzaileei igorria, banku zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateak dakarren erantzukizunari buruzkoa; BOE, 161. zenbakia). Kontuan hartuko dira eta aplikatuko dira unean-unean indarrean den araudiari geroztik egindako aldaketak. UTB kalkulatzeko, hipotesi hauek erabili dira: i) titularrak berehala erabili duela baldintza partikularretan ezarritako kreditu muga osoa; ii) kreditua hileko 12 kuota berdinetan itzuliko dela, erabili den datatik hasita, eta azken ordainketaekin kapitala, interesak eta komisioak kitatzen direla; iii) aldi osoan hitzartutako interes tasa mantentzen dela, bai eta baldintza partikularretan ezarritako gainerako baldintzak ere; iv) denboraren zenbaketa oinarria urtebete (365 egun) dela; v) eta kreditua indarrean mantentzen dela hitzartutako aldiaren, eta alderdiek betetzen dituztela kontratuan ezarritako betebeharrak.

11. ATZERRIAN ERABILTZEA. Txartelak atzerrian erabiltzetik eratorritako zenbatekoak kargatzeko, transakzioaren jatorrizko herrialdeko dibisatik eurorako trukea aplikatuko da; hain zuzen, bankuak eragiketaren zenbatekoa ordaintzen duen egunari dagokion trukea.

Bankuak eragiketa mota horretarako ezarritako komisioak gehituko zaizkio truke tasari. Kontratu hau sinatzeko ekitaldian titularraren eskura dagoen Tarifen, Komisioen, Balioztatze Baldintzen eta Gastu Jasalarazgarrien Liburuan adierazitako moduan aplikatuko dira komisio horiek. Titularrak eta —halakorik bada— onuradunak edo onuradunek, betiere, indarrean den araudia bete beharko dute, atzerrian egindako gastuei buruz diru agintaritzek finkatutako mugei dagokionez; bai eta trukeen kontrolari buruz indarrean den araubidea ere. Bankuak ez du erantzukizunik izango arlo horietan izan daitekeen edozein ez-betetzerean gainean. Titularrak edo onuradunek atzerriara edo atzerrian egindako gastuak edo ordainketak justifikatu behar dizkiete hala eskatzen dieten agintariei, eta bankuak ez du horren gaineko betebeharrak izango.

Titularrak onartzen du eragiketa gauzatzen den data eta dagokion oharpenean jasotzen den data bat bera ez izatea batzuetan, txartelaren sistema eragilearen funtzionamenduaren beraren ondorioz.

12. LABURPENAK BIDALTZEA. Bankuak txartelaren titularraren eta onuradunen eskura jarriko ditu aurreko informazioa itxi zenetik egindako eragiketen laburpena eta ordaintzeke dagoen saldoa, titularrari euskarri iraunkorrean biltzeko eta mantentzeko aukera ematen dioten bitarteko edota formatu elektronikoen bidez, eta, une horretatik aurrera, laburpenean adierazten den kopuruaren kargua egin ahal izango du, titularrarekin adostutako ordainketa moduari jarraituz.

Informazio horiek bidaltzen diren egunetik hogeita hamar (30) egun naturaleko epean ez bada titularraren erreklamazio idatzirik jasotzen laburpenaren edukiri buruz, adierazitako laburpenarekin ados daudela ulertuko da. Aitzitik, titularrak edota onuradunek erreklamazio bat egiten badute, eta akats bat egon dela egiaztatzen bada, idazpen okerrak zuzendu egingo dira, eta kargua egin den balorazio data jarriko zaie.

13. TXARTELEN SALDOAREN GALDAGARRITASUNA. Titularra obligatua da bankuari ordaintzera edozein kontzepturengatik zor dizkion kopuru guztiak, txartelaren eta txartel gehigarrien jaulkitzeari, diru-ateratzei eta erabiltzeari dagokionez.

Eskudirutan itzultzeko sisteman zorraren zenbateko osoa ordaindu ezean, edo hileko hiru kuota —ondoz ondokoak izan nahiz ez izan— ordaindu ezean, bankuak berehala galdagarritzat jo ahal izango ditu txartelaren saldo osoa eta titularrak zor dituen kopuru guztiak, kontratu honetan hitzarturikoarekin bat. Kontratugileek berariaz adosten dute erreklamaturiko kopuruaren frogua nahikoa izango dela bankuak, dagokion likidazioa egin ondoren, jaulkitzen duen ziurtagiria, saldoa adieraztekoa, txartelaren kontuan adierazten den moduan. Horrela zehazturiko saldo zorduna kopuru likido eta galdagarritzat joko da ordainketa ondorioetarako, eta erabateko eraginkortasun juridikoa aitortzen zaio, aurrez. Bankuak zorraren erreklamazioa judiziala egiteko, nahikoa izango dira aurreko paragrafoan deskribatzen den ziurtagiria eta kontratuaren ale bat.

14. KONPENTSAZIOA. Bankuak kontratu honetatik ondorioztatutako obligazioak betetzea galdaz dezakeen, aukera hauek izango ditu: (i) bankuak titularraren izenean —haren izenean bakarrik edo hirugarrenekin solidarioki edo mankomunatuta— irekitako kontu korrante, aurrezki kontu edo bestelako gordailuetako saldoak erabili ahal izango ditu; (ii) kontratu honetatik eratorritako obligazioak edo titularrak bankuarekin dituen obligazioak ordaintzean jasotzen dituen kopuruak egotzi ahal izango ditu, nahiz eta, ordainketa egitean, bankuak gerora egiten duenaz desberdina den egotea egin; eta (iii) kontratu honetan aurreikusituen diren printzipalaren, interesen, komisioen eta gastuen ordainketan berandutzerik izanez gero, bankuan titularraren izenean gordailututako balore edo ziurtagiriari onenean saldu ahal izango ditu. Hartarako, behar adina dokumentu sinatu ahal du bankuak, eta lortutako zenbatekoa kontratu hau dela-eta sortutako zor guztiak osorik edo partzialki kitatzeari aplikatuko zaio, baldin eta, bankuak titularrari salmenta hori egiteko asmoa jakinarazi ondoren, ondorengo hiru (3) egun baldiodunetan titularrak edo onuradunek ez badituzte osoki ordaintzen dagozkien betebeharrak guztiak, kontratu honekin bat. Epe horretan, balio edo ziurtagiri horien gaineko atxikipen eskubidea izango du bankuak. Titularrak Bankuarekin dituen posizio hartzekodunak —haien izaera edozein dela ere— posizio zordunak bermatzen ditu. Berme horren barruan biltzen dira, hala dagokionean, kontratuaren titular guztiak eta haien posizio guztiak, baita hirugarrenekin era mankomunatua edo solidarioan izan ditzaketenak ere.

15. EZ ORDAINTZEAREN ONDORIOAK. BERANDUTZE INTERESAK. Txartela erabiltzearen ondorioz bankuari zor zaizkion kopuruaren kasuan —finkaturiko epean ordaindu ez diren gastu eta komisioak barne—, kontratu honen baldintza partikularretan ezarritako berandutze interes nominala aplikatuko du bankuak, eta interes arrunten gisa likidatu ahal izango da. Gainera, bankuak kontratu hau suntsiarazteko eskubidea izango du.

Ordainagiri ordaindugaberik izanez gero, titularrari aplikatuko zaio baldintza partikularretan ezarritako ordainagiri ordaindugabearen komisioa. Komisio hori aplikatu baino lehen, zorra ordaintzea lortzeko errekerimenduak eta kudeaketa pertsonalizatuak egingo zaizkio titularrari. Era berean, titularrak ordainketa betebeharrak betetzen ez baditu, haren datuak ondare kaudimeneko eta kredituko fitxategiei jakinarazi ahal izango zaizkie, baldintza orokor hauetako «Datu pertsonalak babestea» atalean eta indarrean den araudian ezarritakoari jarraituz.

16. KOMISIOAK ETA GASTUAK. Kontratu honetako baldintza partikularretan ageri diren komisio eta gastuak aplikatuko dira, ondorengo baldintza hauei eta bankuaren Tarifa eta Komisioen Liburuan ezarritakoei jarraituz:

- Jaulkitze edota mantentzearen komisioa. Txartela irekitzearen egunean eta ondoz ondoko urteurrenetan kobratuko da.
- Eskudirua ateratzearen komisioa. Ateratako eskudirua zenbatekoarekin batera edo egindako hurrengo likidazioan zordunduko da komisioa.
- Txartelean gaintzearen komisioa. Gaintutako kopuruaren gainean kobratuko da.
- Ordainagiri ordaindugabearen komisioa. Zordun saldoa judizioz kanpo erreklamatzearren gastuengatik bankua konpentsatzeko aplikatuko da.
- Txartelaren kopia egitearen komisioa. Kopia eskatzen den egunean kobratuko da.
- Dibisa trukearen komisioa. Dagokion kitapena egiten den datan ordainketa sistemek lortu duten trukearen arabera dibisetan egindako transakzioen euroen kontrabaliotik ateratzen den zenbatekoaren gainean kobratuko da.
- Ordainketa geroratua duten txartelaren aurrez amortizatzearen konpentsazioa. Komisio hori kobratuko da, baldin bezeroak aldez aurretik kitatzea erabakitzen badu, ordaintzeke dauden kuota zenbatekoa muga egunaren aurretik ordainduta.
- Ordainketaren geroratzea kudeatzearen komisioa. Hilaren bukaerako ordainketa osoa duen txartela duten bezeroei aplikatzen zaie, baldin beren txartelean ordaintzeke dagoen saldoaren edo eragiketa zehatzen ordainketa zenbait hilabetetara geroratzeak aukera hartzearen bankuak egiten dizkien unean uneko

eskaintzak onartzen badituzte.

Bankuak titularrari jasanarazi ahaliko dizkio kontratu honen ondorioz sortzen diren hainbat gastu (posta, telefona, SMS mezuak, telexa, telefaxa edo antzekoak), Tarifen Liburuan banakatuta ageri diren zenbatekoekin bat etorrira.

17. **BALDINTZAK ALDATZEA.** Kontratuak iraunaldi mugagabea duenez, bankuak aldatu ahal izango ditu interes nominaleko tasak, likidazio epeak, jasanarazi daitezkeen komisio eta gastuak, kreditu muga, eta oro har kontratuko baldintzak. Aldaketak titularrari modu individualizatuan jakinaraziko zaizkio, paperean edo beste euskarri iraunkor batean, aldaketak aplikatu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago. Aldaketek titularrari onurarik badakarkiate, berehala aplikatu ahaliko dira. Hala ere, titularrari zuzentzen zaion lehen komunikazioan jakinaraziko da aldaketa. Titularrak baldintzak onartzen dituela joko da, nolaz eta aurkakoa jakinarazten ez dion bankuari, aldaketak indarrean sartzeko proposatutako data baino lehen. Kitatuz gero, ez dira aplikatuko komunikatutako baldza berriak. Horrelakoetan, kontratu hau suntsituko da berehala eta titularrari kosturik eragin gabe. Hala ere, titularraren betebeharra izango da egun horretan dagoen zorraren zenbatekoa itzultzea, ordaintzeke dauden komisio eta gastuekin batera.

18. **UKO EGITEKO ESKUBIDEA.** Kontsumorako Kredituen Kontratuen Legeko (16/2011 Legea, 2011ko ekainaren 24koa) 28. artikuluan ezarritakoari jarraituz, hamalau (14) egun naturaleko epea izango duzu, kontratu hau sinatzen den unetik, kontratu honi uko egiteko, arrazoia adierazi beharrik gabe eta penalizaziorik gabe. Titularrak, uko egiteko bere eskubidea erabiltzeko, hau egin beharko du:

a) Bankuari jakinarazi, 21. klausulan adierazitako helbidera hartu-agiria duen gutun ziurtatua bidalita. Epea errespetatu dela joko da, eta ondorioz uko egiteak eragina izango du, baldin jakinarazpena hamalau (14) egun naturaleko aipatu epea bukatu baino lehenago bidali bada.

b) Bankuari ordaindu bai kapitala, bai bankuak dirua eskuragarri jarri zuen egunetik titularrak kapitala itzuli zuen egunera bitarteko epean erabilitako kapitalaren gainean metatutako interesa, berandutze desegokirik gabe, bankuari uko egitearen jakinarazpena bidali eta hogeita hamar (30) egunera gehienez. Zor diren interesak, baldintza partikularretan hitzartutako zordun tasaren gainean kalkulatu dira. Uko egitearen kasuan, bankuak ez du eskubiderik izango titularrari beste konpentsaziorik erreklamatzeko, salbu eta bankuak Administrazio publikoari ordaindutako itzuli ezinezko gastuengatik konpentsazioa.

19. **BLOKEATZEA ETA AURREZ SUNTSIARAZTEA.** Bankuak txartela blokeatu ahaliko du, eta kontratu hau aldi baterako edo behin betiko eten, kasu hauetan: a) titularraren egoera pertsonalean, lanekoan, ekonomikoan edota ondarekoan aldaketa gertatu bada, eta bankuaren iritzira —Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularreko 12. arauan ezarritakoari jarraituz— titularraren kaudimeneko edo ordainketa ahalmeneko inguruabarretan aldaketa nabarmena badakar; b) titularraren ordainketa betebeharretan ez-betetzerean bat gertatu bada; c) txartelaren erabilera baimendugabearen edo iruzurrezkoaren susmorik baldin bada. Blokeoa, ahal bada, gauzatu baino lehenago jakinaraziko da; eta ezin bada, gauzatu eta berehala.

Kontratua suntsiarazteko kausa izango dira aurreko paragrafoan ezarritakoak, bai eta kontratuan jasotako betebeharrak edozein ez betetzea, bereziki ondorengo betebeharrak hauek: 13. klausulan ezarritakoari jarraituz ordaintzeak; 6. klausulan xedatuta dauden bermeko eta funtsen iraupeneko betekizunak betetzekoak; eta kontratu harremanaren hasieran bankuak ezarri dituen arriskua estaltzeko kaudimen mailak mantentze aldera titularrak duen betebeharra.

20. **DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.** 1. Datu-babes kontuetan indarreko araudiaren arabera (bereziki 2016/679 Araudia (EBA) eta Espainiako Eskubide-rako transposizio arauak), informatuen dugu Titularrak emandako datuen tratamenduko arduraduna TRIODOAK dela NV BANK-a, S.E. José Echegaray kalean, 5 zenbakian, 28.232 bizilekuarekin, Las Rozas Enpresa-Parkearekin, Madrilgo (Madrilgo) Las Rozas-en. 2. Triodos-ek bezeroak emandako datuak erabiliko dituzte: a) Tarjeta-ko kontratuaren eta, onespenez egotekotan, kontratua betearaztearen eskaeraren ikerketa. Ikerketarako eskatutako datuak ezinbestekoak gertatzen dira, ez ematea, bera burutu ezin izango duen. Titularra informatuta geratzen da eskaeraren kaudimen analisirako beharrezkoa izango dela ondare-kaudimeneko eta kredituko, EXPERIAN-BADEXCUG-a edo ASNEF-EQUIFAX-a bezala, fitxategiak, baita ere Espainiako Bankuaren (CIRBE-aren) Arrisku-eta Informazio Zentrala kontsultatzea. Kontsultatik lortutako datuagatik eskaera ukatzerik egotekotan, Bankuak Titularra informatuko du kontuan hartzen dituen alegazioak egin ahal dizala. Tratamendu hauek egiteko oinarri juridikoa dago En kontratuzko erlazioa eta Bankuaren jarduerari aplikatzeko moduko araudia betetzean mantenua b) Produktuak eta Bankuak merkaturatutako bere interesetik aterata daitezkeen zerbitzuak titularrari eskaintzea. Bankuak kontuan hartuko ditu kontratatuta dituen produktuak eta komunikazioak neurria egiteko ematen digun informazioa. Eskaintzak egin ahal izango dira posta, elektronikoa edo telefonikoa komunikazioen bidez. Tratamendu hau Bankuaren interes legitimoan oinarritzen da eta Titularraren interesarekin orekatuta beti egongo da, honek Bankuari komunikazioak eta/edo merkataritza-eskaintzak bidaltzei utz diezaiola aurrerago eskubideen ariketarako deskribatutako prozedurari jarraituz beti eskatu ahal izango dion. c) Titularrarekin komunikatzea: Bankuaren datu erregistroak eguneratuta mantentzea; produktuak eta Bankuaren zerbitzuak zein, estatistikak, galdeketa edo merkatu-azterketak hartarako eginez, Titularrari interes handiago gerta dakizkioken aztertzea; produktuak buruzko alertak eta bere telefono mugikorrera, bere helbide elektronikora edo beste Bankua gehi dezakeen edozein kanalegatik kontratatuta dituen zerbitzuak Titularri bidaltzea. 3. Bankuak tratatuko dituen datuak elkartzen diren kategoriak hurrengoak dira: datu identifikatzaileak; bere zuzagarri pertsonalei buruzko datuak; informazio finantzarioko eta kaudimeneko datuak, eta kontratua betearaztetik ondorioztatutako datuak. Modifica-ciones guztiak per-sonales-a bere datuetan gerta daitezkeen, gertatu bezain laster Titularrak Bankuari actualiza-dos-a mantentzeko berak komunikatu behar izango dizkio. Bankua ez da izango Titularrentzat kontratatutako datuen gaurretako bere ardura faltagatik ondorioztatu ahal izan ziren ondorioetako arduraduna. 4. Bakarrak Bankuak partekatuko du hirugarren arau juridikoko halako komunikazioa egitera behartzen duenean Titularraren datu pertsonalak, hau beharrezko atera dadin zerbitzua ematerako kontratatuta edo Bankuak hornitzaile-erabilera behar dezan kontratu egiteko. Aurrekoaren arabera bere datuak tratatu ahal izango dituzte: a) Triodos NV Bank, Bankua sukurtsala, Herbehereetako bere bulegoetan, datu-babes-maila berarekin Espainia, beharrezko kudeaketa haiek bere kontratuak betetzeko burutzeko, baita ere bi herrietako legeko betebeharrak aplikagarriekin konplitzeko, baino herriko, den kreditu-entitate; b) Organismoak publikoak kompetenteak, bai Espainiako bai nederlandar, informazioa bere datuen gainean eskatzera eskubidea dezatela, halako Auzitegiak eta Auzitegiak, Segurtasun-Indarrak bezala, Zerga Agentzia, Espainiako Banku (CIRBE-a Titularraren kreditu operazioen datuei buruz sartuta), Herbehereetako Bankua (DNB-a); c) Txartelaz burutzen diren transakzioetan parte hartzen duten enpresak (adibidez, MasterCard, BISA); d) enpresa ondare-kaudimeneko eta kredituko fitxategi kudeatzaileak halakoak EXPERIAN-BADEXCUG-a edo erabileratik ondorioztatutako ez ordaintze datuei dagokienez ASNEF-EQUIFAX-a bezala Txartelak. Aipaturiko informazioa emango da beti ezarritako araudi aplikagarriko efekturako beharrek konplitzeko; e) indarreko araudiaren arabera, parte hartzen duten entitateak saihesten saiatzean eta/ aurkitu iruzur-batzordea edo delitu finantzarioak. Bankuak ez du datu-lagapenik egiten Europako Espazio Ekonomikotik («EEE-etatik») kanpo aurkitzen dituzten antolaketetara. Azkenik Titularra informatzen du Bankua eta ordainketako, baita ere ordainketako eta erlazio-tutako zerbitzu teknologikoko mailegatzaileetako berezko sistemetako gainerako zerbitzu mailegatzaileak datuak transmiti daitezkeen transakzio bakoitza burutzeko, Egoeraren legeriak behartuta egon daitezke tokian egon daitezkeen kokatuta, edo, informa-ción-a autoritateetarako diruzko transakzioak edo beste herri batzuen organismo ofizialak, bai barruan bai Europar Batasunetik kanpo kokatuta, terrorismoaren finantzaketaren kontrako borrokaren esparruan gainean ematera honek ondorioztatutako akordioengatik, delin-cuencia antolatuko forma larriengatik eta prebentzioagatik zuziketako kapitaleko. 5. Bankuak bere datu pertsonalak mantenduko ditu kontratuaren iraunaldian zehar eta, behin buka dadin hau, izaera orokorraz, 10 urteko maximoan kokatzen diren indarreko araudian jarritako epeetan zehar. Aldi horretan zehar datuak mantenduko dira Administrazio Publikoen, Auzitegien eta Auzitegien eskaerez arduratzeko, baita ere edozein kontsultari edo Titularraren kezari erantzuteko. Efectura eramaten ez diren produktuak kontratazioaren eskaeren kasuetan, 6 hilabeteko epe handian Titularraren datuak mantenduko ditu, haiek goiko aldiaren zehar eskaera arauemailengatik mantentzea beharrezkoa izan ezan edo aurkez daitezkeen eskaera berriko ikerketa Bankuari aldi horretan zehar erantzeko. Esandako epeetan igarota, ekingo zaio datuen suntsiketari, bai tratamenduan bai bere ondorengo suntsiketaren hauen konfidentzialtasuna Titularri bermatuz. 6. Titularrak hurrengo eskubideak erabili ahal izango ditu bere datu pertsonalen tratamenduari dagokionez: a) Bere datuetarako sartzeko eskubidea, b) El zuzenketa eskubidea, c) El kentze-eskubidea edo bere datuen indargabetzea, d-en) El oposizio-eskubidea, eta) El f datuen tratamenduaren mugara zuzena) El eramangarritasunera zuzena. Esandako eskubideak egiteko Titularrak BANK-a zuzendu behar du TRIODOETARA, N.V., ESPAINIAN SUKURTSALA, bere bankua www.triodos.es-etako Internetetik jartzen duen postontzi pertsonalean zehako; gutunagatik N.V BANK-a TRIODOETARA zuzenduta, SUKURTSALA ESPAINIAN, Datu-Babeseko, José Echegaray kaleko, Las Rozas Enpresa-Parke, Madrilgo (Madrilgo) Las Rozas-eko 5 zenbakiko, 28.232, baita ere postaren bitartez Ordezkarria elektronikoa elektronikoa techedatos@triodos.es-i zuzenduta. Bere identitatea akreditatzeko, Titularrak lagundu behar izango dio bere DNI/NIF-eko fotokopia bati edo dokumentu identifikatzaile baliokideari bere eskaerara. Halaber, Titularrak Datu-Babeseko Espainiako Agentziaren aurreko kexa aurkeztu ahal izango du, zeinetarako bere web-orria kontsulta dezakeen: www.agpd.es.

Azkenik, Banco-k aipatu du Datu-Babes-Ordezkarria, Titularra bere helbide elektronikoen bidez datu pertsonalen tratamenduari buruzko edozein kontutarako

harremanetan jarri ahal izango dena: protecciondedatos@triodos.es. Titularrak datu-babesa www.triodos.es-etako Pribatutasun Adierazpeneko Bankuaren politikaren gainean, eta Triodoak Kontratu Osoaren Datu-Babeseko Klausulan informazio gehiago aurki dezake.

21. **EZ GAUZAZTEA EDO GAUZATZE AKASTUNA.** Triodos Bank NV, S.E. izango da erantzule, txartelaren titularraren aurrean, ordainketa eragiketa egokiro gauzatzeaz, harik eta haren zenbatekoa onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kontuan ordaintzen den arte. Triodos Bank NV, S.E. baldin bada, arrazoirik gabeko atzerapenik gabe txartelaren titularrari itzuliko dio eragiketari dagokion kopurua; eta, hala badagokio, ordainketa eragiketa akastuna egin izan ez balitz egon beharko lukeen lehenagoko egoerara berrezarriko du ordainketa kontuaren saldoa. Betiere, txartelaren titularretik datorren ordainketa agindua ez bada gauzatzen edo akatsarekin gauzatzen bada, Triodos Bank NV, S.E. saiatuko da berehala jakiten, aurrez eskatuta eta atal honetan ezarritakoari jarraituz duen erantzukizuna gorabehera, ordainketa eragiketari dagozkion datuak, eta agindu-emaileari jakinaraziko dizkio emaitzak.

22. **KOMUNIKAZIOAK ETA JAKINARAZPENAK.** Alderdiak elkarri egin beharreko komunikazio guztiak, honela egingo ditu titularrak: i) helbide honetara idatziz: Triodos Bank N.V., S.E., C/ José Echegaray, 5, Las Rozas de Madrid, 28232 Madrid; ii) telefonoz, ondorengo zenbaki hauetako edozeinetara deituta: 916404684 edo 902360940. Eta bankuak honela egingo ditu: titularrak emandako bizilekuko edota posta elektronikoko helbidera, bai eta titularrak banketxearen webgunean (www.triodos.es) duen postontzi pertsonalera ere. Kontratu honen baliozkotasunaren ondorioetarako, egoki suertatzen diren jakinarazpen, errekerimendu eta eginbideetarako, alderdiak baliozko helbidetzat adierazten dituzte titularrarekin sinatutako baldintza partikularretan bakoitzarentzat ageri direnak. Bereziki, titularrak berriazko baimena ematen dio bankuari, jakinarazpen horiek egin ditzan bide fidagarri, auditagarri eta erakunde jakinarazletik independente bat erabiliz, edo bide ziurtatuz, dela paperezko postaz, dela posta elektronikoz, kontratu honetan adierazitako bizilekura, helbide elektronikora edo telefono mugikorreko zenbakira.

23. **KREDITUA LAGATZEA.** Titularrak berriaz ahalmena ematen dio bankuari, kontratu honetatik ondorioztatutako kreditua hirugarren bati lagatzeko. Hirugarren horrek bere gain hartuko du titularrarekiko hartzekodun posizioa. Lagatze horretan, bete beharrekoa izango da Merkataritza Kodeko 347. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa, eta Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoa, titularrari lagapena komunikatzeari dagokionez.

24. **LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA NAHIZ ESKUMENA.** Kontratu hau Espainiako legeek arautuko dute, eta alderdiak men egiten diete legedi aplikagarriari jarraituz dagozkien epaitegi eta auzitegiei. Kontratu dokumentua gaztelaniaz egin da, edo bezeroak aukeratutako nazio lurraldearen zati bateko hizkuntza ofizialean. Hala ere, hizkuntza araudi berezia duten autonomia erkidegoetan, baldin haietan bankuak jendearentzat irekitako bulegoak baditu, hizkuntza eskubideei buruzko autonomia arauak errespetatuko dira, bereziki bezeroekiko komunikazioei dagokienez.

25. **KONTRATAZIOAREN BALDINTZA OROKORRAK.** Alderdiak bat datoz kontratu honetan jasotako aurreko baldintzak —berriaz baldintza partikularizat kalifikatuak izan ezik— kontratazioaren baldintza orokortzat hartu behar direla, Kontratazio Baldintza Orokorrei buruzko 1998ko apirilaren 13ko 7/1998 Legean adierazitako ondorioetarako. Baldintza horiek kontratu honen barrukotzat hartzen dira, titularrak eta —halakorik bada— onuradunek berriaz ulertu eta onartu dituztelako, atxikiak diren aldetik; alde aurretik horiek badirela berriaz jakinarazi die bankuak, hartaratzailak diren aldetik.

26. **BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA. KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK.** Bankuak badu Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, eta hari dagokio bankuaren bezeroen kexa eta erreklamazioei irtenbidea ematea, gehienez ere bi hilabetean. Bezeroak zerbitzu horri aurkeztu beharko dizkio bere kexa eta erreklamazioak, Espainiako Bankuaren Merkatu Jokabideko eta Erreklamazioetako Sailean erreklamazioa aurkeztu baino lehen. Bankuak badu Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren arautegi bat, eta haren helburua da bai zerbitzua, bai kexa nahiz erreklamazioak aurkeztu, artatu eta ebazteko modua arautzea. Araudi hori eskuragarri dute bezeroek bankuaren webgunean eta bulego guztietan. Kexa eta erreklamazioak idatziz aurkeztu behar dira, bide hauetatik: bankuaren bulegoetan; helbide egokira (Triodos Bank N.V., S.E., C/ José Echegaray, 5, 28232 Las Rozas, Madrid) paperezko posta bidalita; edo reclamaciones@triodos.es helbide elektronikora bidalita.

27. **KAPITAL ZURITZEAREN PREBENTZIOAREN ARAUDIA.** Bezeroari jakinarazi zaizkio erakundeari dagozkion betebeharrak, kapital zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearren arloan indarrean den arudiari dagokionez (bezeroa identifikatzea, eta benetako titulartasuna, jarduera ekonomikoa eta diruen jatorria jakitea direla eta), bai eta negozio harremana ezagutzeari eta etengabe jarraitzeari dagokionez beharrezko prestasuneko neurriak aplikatu beharra ere. Horrenbestez, bezeroa behartuta dago bankuari aurreko betebeharrak betetzetik ondorioztatzen diren informazio eta dokumentazio oro ematera. Eskakizun horiek ez betetzeak berekin ekar dezake bezeroarekiko negozio harremana suntsiaraztea, bai eta, hala egokituz gero, agindu jakin batzuk ez gauzatzea ere. Horri dagokionez, bezeroak onartzen ditu ondorengo betebeharrak, neurri eta baimen hauek, kapital zuritzearen arauditik ondorioztatuak:

- Bezeroak onartzen du ezen, identifikazioari, benetako titulartasunari edo diruen jatorriari buruzko dokumentu eskakizunei behar bezala erantzuten ez badie, edo bezeroak egindako eragiketetatik eratorrita zuritze araudiari lotutako arriskuak nabari badira, bankuak haren kontuen eragiketak blokeatu ahalko dituela, eta kontratatuta dituen produktu kontratuak ezeztatu ahalko dituela.
- Triodos Bank NV SE bankuak bezeroaren berriazko baimena du, edozein erakunde publiko nahiz pribaturi bezeroaren jarduerari edo nortasunari buruzko informazioa eskatzeko.
- Bezeroak bere gain hartzen du, bankuak hala eskatuz gero, bizi fedea edo antzeko dokumentua aurkezteko betebeharra, edo bankuaren bulegoetako batean aurkeztekoa, bere nortasuna eta bizirik dagoela baieztatzearen.

A TXARTEL NAGUSIAREN TITULARRAREN/ESKATZAILEAREN NAHITAEZKO DATUAK

Izena _____ 1. abizena _____ 2. abizena _____ Jauna Andrea

IFZ/AIZ _____ Jaiotze-data _____ E. zibila _____ Seme/alaben kopurua _____

Ohiko bizilekua _____ Herria _____ P.K. _____

Probintzia _____ Tel. partikularra _____ Mugikorra _____ E-maila _____

Etxebizitza: Norberarena Norberarena, hipotekarekin (Kuota _____ Eroste-data _____)

Alokairuan (Hileko errenta _____ Hasiera-data _____) Bestelakoak

LANA ETA DIRU-SARRERAK

Lan-egoera: Besteren kontura Norberaren kontura (Autonomoetako alta-data _____)

Jubilatua (Jubilatze-data _____) Lanik gabe Bestelakoak

Enpresa _____ Lanbidea _____ Lanpostuko antzinatasuna _____

Jarduera-sektorea _____ Urteko diru-sarrera garbiak _____

Kontratu-mota: Aldi baterakoa Finkoa

FINANTZA-DATUAK

Beste txartel edo mailegu batzuk:

Maileguak Erakundea _____ Kontsumoa Saldo bizia _____

Txartelak Erakundea _____ Kreditu-muga _____

B BALDINTZA PARTIKULARRAK

KREDITU MUGA:

Aukera ezazu hileko zer kreditu muga eskatu nahi duzun zure Tarjeta de Crédito Triodos txartelerako:

- 600 € Ordainketa geroratua: TIN anual 12% TAE: 25,86%
- 1.200 € Ordainketa geroratua: TIN anual 12% TAE: 18,96%
- 2.000 € Ordainketa geroratua: TIN anual 12% TAE: 16,38%
- 3.000 € Ordainketa geroratua: TIN anual 12% TAE: 15,12%
- 5.000 € Ordainketa geroratua: TIN anual 12% TAE: 14,13%

DIRU-ERABILERAREN MUGAK:

Ondasun eta zerbitzuen erosketetako mugak:

- Egunekoa: Bat dator Tarjeta de Crédito Triodos txartelaren zure kontratuko kreditu mugarekin.

Eskudirua ateratzeko mugak, berdin diolarik ea lotutako kontuko saldoa zenbateko handiagoa den:

- Egunekoa: 600 €.

Muga horietakoren bat aldatu nahi baduzu, 902 360 940 edo 91 640 46 84 telefonoetara deituta eska dezakezu, edo gure bulegoetako edozeinetara etorrita.

ORDAINTZEKO MODUA:

Ordaintzeko modu bakarra aukera ezazu zure Tarjeta de Crédito Triodos txartelerako:

- ESKURA (hilaren bukaeran ordaintzea, interesik gabe)
- GERORATUA Erabilitako kopuruak hilero ordaintzeko modu hauen artean aukera dezakezu:
 - Geroratu finkoa _____ € (gutxienez 60 €, gehienez 600 €). Aukeratutako kuotan sartuta egongo da kapital amortizatua gehi sortutako interes eta komisioak.
 - Ehuneko-geroratu _____ % (gutxienez % 10, gehienez % 30; bi ehuneko horiek likidazio egunean erabilia dagoen saldoaren gainean kalkulatzen dira) Hileko kuota kalkulatzeko, txartelaren saldo erabiliaren gainean aukeratutako ehuneko aplikatuta ateratzen den zenbatekoari, sortutako interes eta komisioak batzen zaizkio. Ateratzen den kuota ezingo da izan 60 eurotik beherakoa, ez eta 600 eurotik gorakoa ere.

KOMISIOAK

- Kutxazainean eskudirua ateratzearen komisioa:
 - Triodos Bank kutxazaina: % 2,00, gutxienez 3,00 €
 - Estatuko sareko kutxazaina: gehienez ere, kutxazainaren jabe den erakundeak ezarritako komisioa gehi % 2,00, Gutxienez 3,00 €.
- Estatuko beste kreditu erakunde batzuen Espainiako edo atzerriko bulego batean dirua ateratzearen komisioa: % 4,00, gutxienez 3,00 €
- Bankuan norberaren kontura dirua intsuldatzearen komisioa: % 2,00, gutxienez 2,00 €
- Aurretiaz amortizatzearen komisioa: % 0,00, gutxienez 0,00 €
- Gaindituaren komisioa: ez dago erabilgarri
- Ordaindugabea erreklamatzearen komisioa: 30,00 €
- Dibisetako eragiketen komisioa: 0,00 €
- Ordainketa geroratzearen komisioa: 0,00 €
- Jaulkitzearen komisioa: 34,00 €
- Mantentzearen komisioa: 34,00 €
- Txartelaren kopia egitearen komisioa: 8,00 €

El Banco podrá repercutir al titular los gastos de correo, teléfono, SMS, télex, telefax o similares que se ocasionen como consecuencia del presente Contrato, según los importes que aparecen desglosados en el Libro de Tarifas

Tipo de interés de demora: 12 %

C ADIERAZ EZAZU ZURE TRIODOS BANK N.V. KONTU KORRONTEA (kontu elkartua)

Zure Triodos kreditu-txartelarekin egiten dituzun eragiketa guztien zenbatekoa (erosketak eta kutxazainetan eskudirua ateratzea) zuk adierazitako Triodos kontu korrontean kargatuko da:

Letra país D.C. Entidad Oficina D.C. Nº Cuenta
ES 14910001

Txartel gehigarriaren onuraduna, kontu honetarako, hau izango da: titularra baimendua ez du esku hartzen

D ZER GERTATUKO DEN ZURE TXARTEL ESKAERA ONARTUTAKOAN

Tarjeta de Crédito Triodos txartelaren eskaera onartutakoan,

- 1. Eskaera honek kontratu izaera hartuko du, eta, Triodos kontratu orokorrenarekin batera, titularraren eta Triodos Banken arteko harremanak arautuko ditu, Tarjeta de Crédito Triodos txartelari dagokion guztian.
- 2. Zure Tarjeta de Crédito Triodos txartela bidaliko dizugu.
- 3. Zure zenbaki sekretua (PIN) lortzeko, bide hauetako edozein erabil dezakezu: Banca Internet, Banca Telefónica edo bulegoak.

Gogoan izan: txartela aktibatzeak esan nahi du titularrak onartzen dituela kontratu honetan ezarritako baldintzak, eta aktibatzeke unean ezartzen direnak.

E NAHITAEZKO KLAUSULA

KONTRATU GLOBALARI ETA PRODUKTUARI BURUZKO ADOSTASUN ETA ONARTZE KLAUSULA

Dokumentu honen bitartez, sinatzaileak/sinatzaileek, norberaren izenean, ala ordezkatzan duen/duten entitatearen izenean ala haien legezko ordezkari edo ahaldun gisa, ondorengo adierazten du/dute:

((1) Triodos Banki eman dizkion/dizkioten bere/beren datu pertsonalak egiazkoak eta zehatzak direla; (2) adinduna/k dela/direla; (3) onesten duela/dutela (a) adingabearen/adingabeen datuak trata daitezela, bai eta bere/beren datu pertsonalak tratatzea ere, Triodos Bank N.V. S.E. Kontratu Globaleko datu pertsonalen babesari buruzko klausulan adierazitakoari Kontratu berean jasotakoa, (4) alde aurretik nahikoa denborarekin jaso dute eta onartzen dute indarrean dagoen Triodos Bank N.V. S.E. Kontratu Globala; kontratu horretan sartuta daude Triodos Bank N.V. S.E.ren baldintza orokorrak eta produktu eta zerbitzuen baldintza orokorrak, eta bereziki datu pertsonalen babesari buruzko klausula, telefonozko elkarrizketak grabatzeari buruzko klausula, eta sarrera gakoetarako, telefono bidezko eragiketarako eta Internet bidezko eragiketarako segurtasun arauak; (5) onartzen dituela/dituztela kontratatutako produktuaren/produktuen baldintza partikularrak eta finantza baldintzak; (6) jaso duela/dutela Tarifen, Komisioen, Gastuen Balioztapen Arauen eta Iragarki Taularen Liburuaren ale bat. (7) Triodos Bank N.V. S.E.ren produktuak urrutitik kontratatu nahi izanez egonez gero (bide elektronikoz edo papereko postaz), adierazten du/dute www.triodos.es webgunean euskarri iraunkorrean eskuragarri dagoen gure produktuei buruzko informazioa alde aurretik nahikoa denborarekin ezagutu ahal izan dutela, bai eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuen bitartez gatazkak konpontzeko sistemari, zenbait produktu kontratatu ondorengo 14 egunean Bankura zuzendutako idatziko komunikazio baten bidez uko egiteko eskubidea erabiltzeko aukerari, Herbehereetako Banku Zentralak araututako gordailuen berme sistemaren existentziari, eta ordainaz dakizkiokeen/dakizkiekeen komisio eta gastuen existentziari (horiek ere beti eskuragarri daude, 902 360 940 telefonoaren edo www.triodos.es webgunearen bidez idatziko informazioa eskatuz) buruzko informazioa ere. (8) Dokumentu hau eskuz idatzitako sinadura elektronikoz edo eskuz idatzitako sinadura digitalizatuz izenpetu baldin bada, adierazten dut egiaztatu eta baliozkotu dudala sinaduraren zuzentasuna, eta neuretzat onartzen dudala; eta baimentzen dut bitarteko elektronikoak edo telefonozkoak erabiltzea, kontratazio prozesua behar bezala osatzeko. Hala sinatutako kontratu eta dokumentuak banketxeak gordeko ditu, aplikatzeko den legedian zehaztutakoari jarraituz aski bermerekin. Ez baduzu nahi zure datuak tratatzerik, bidal ezazu zure eskaera aurreko (3) atalean adierazitako helbideetara, edo marka itzazu ondorengo lauki hauek:

LAN DATUAK EGIAZTATzea

Titularrak/titularrak jaso du/dute Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsalarengandik informazio hau: kapitalak zurtzea prebenitzeari buruz indarrean den legediari jarraituz, banketxeek beren bezeroengandik eskuratu behar dute bezero horien ekonomia jarduerari buruzko informazioa, eta informazio hori egiaztatu. Emandako informazioa egiaztatzeke helburu bakar horrekin, berariazko adostasuna ematen diot/diogu Triodos Bank NV S.E. konpainiari, nire/gure izenean Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorriari informazio hori eskatu ahal izan dakion. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorretik lortutako datuak, aurrez adierazitako kudeaketarako beste ezertarako ez dira erabiliko. Finantza erakundeak edo erakunde horretan zerbitzu egiten duten langileek betebeharrak betetzen ez badute, 1999ko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteko Legea) ezarritako jarduketa guztiak egikarituko dira.

GARDENTASUNA, AURRETIKO INFORMAZIOA ETA KONTRATUZ AURREKO INFORMAZIOA

Titularrak edo titularrak adierazten dute Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsalak eman dizkiela eta eskura jarri dizkiela, indarrean den araudia betez, esplikazio egokiak eta nahikoak, eskainitako banku zerbitzuaren funtsezko baldintzak ulertzeko (ordainketa zerbitzuena barne, halakorik kontratatuz gero). Kontratu aurretik garaiz jaso dutela aurretiko eta kontratuz aurreko informazioa (besteak beste, gordailugileei eman beharreko informazio inprimakia, gordailuen estaldurari buruzkoa), bai eta kontratatutako finantza produktuaren sailkapenari buruzko informazioa ere, ECC/2316/2015 Agindurekin bat etorrira, eta kontratua egiteak titularrarentzat edo titularrarentzat izan ditzakeen ondorioen adierazpena. Horrela, erabaki informatua hartu ahalko dute, beren beharrak eta beren finantza egoera kontuan hartuta. Emandako informazio horretan sartuta dago badagoela 1. eranskina («Pertsona fisikoak diren bezero profil arruntetikiko eragiketa ohikoetan gehien praktikatutako edo eskaini ohi diren komisio eta tasei buruzko hiruhilekoko informazioa»), zein den haren edukia, eta non kontsulta dezaketen.

ZERGA EGOITZAREN ADIERAZPENA, ETA DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA AURKEZTEKO KONPROMISOA

Dokumentu honen bitartez, titularrak naizena honek (edo titularrak garenok, bat baino gehiago izanez gero) neure ardurapean adierazten dut zerga egoitza adierazitako herrialde edo lurraldean dudala soilik, eta egoera aldatuz gero hitzemanden dut banketxeari jakinaraziko didala 30 eguneko epean. Horretarako, zerga-egoitzaren adierazpen eguneratuak aurkeztuko dut, bai eta banketxeak eskatutako dokumentazioa ere, unean-unean aplikagarri den araudiari jarraituz. Eskatutako dokumentuak adierazitako epean ez aurkezteak ekar dezake, Tributuen Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituz, banketxeak ez egitea karguak, abonua, ez eta edonolako eragiketarik ere, harik eta benetan aurkezten diren arte; edo are produktuak ezeztatzea ekar dezake, baldin justifikaziorik gabe dokumentuak entregatzeari uko egiten bazaio.

Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsala, c./ José Echegaray 5, 28023. Las Rozas (Madrid). Telefonoa: 902 360 940. Madrigo Mekatari Erregistroa: 19.798 Tomoa, 180 Folia. 8 Siala, M-348646 Orria eta Espainiako Bankuan 1491 zenbakiarekin. IFK: W0032597G.

INFORMAZIOA BIDALTZEA

Zure Triodos produktuari buruzko informazioa beti eskuragarri izango duzu Banca Internet zerbitzuan (www.triodos.es). Komunikazioak eta informazio bidalketa oro har bide elektronikoz egingo dira, gordetzea eta berreskuratzea ahalbidetzen duten euskarri iraunkorretan. Informazio hori paperean bidaltzea eska dezakezu, 902 360 940 telefonora deituta (posta gastuei dagokien zenbatekoa, indarrean diren posta tarifen arabera ezarriko da). Kontsultaren bat egin nahi baduzu edo argibideak nahi badituzu, zure zerbitzura duzu Triodos Bankeko profesionalen taldea. Dei iezaguzu 902 360 940 telefonora.

F SINATU HEMEN

Gogoan izan txartela egiaz ematea eta, hala egokituz gero, erabilgarri dauden kreditu mugak, alde zurretik titularraren kaudimen ekonomikoa eta zorpetze gaitasuna aztertu eta ebaluatzearen mende daudela, bai eta bankuaren erabaki organoek eragiketa onartzearen mende ere. Horretarako, bankuan jaso beharko dira eskatutako dokumentu guztiak.

Eskatzaileak adierazten du jaso duela dokumentu honen kopia —dela paperean, dela berak aukeratutako komunikazio elektronikoaren bidezko euskarri iraunkorrean—, eta berariaz eskatzen du kontratuaren kopia bidal diezaiotela www.triodos.es webgunean duen buzoi pertsonalera.

V1SCTCPFEUK_06/17 bertsioko dokumentu hau 8 orrialdekoa da, eta orrialde bakoitzean ageri da zenbakia eta bertsioa, behar bezala identifikatzearren. Dokumentua sinatuz, eskatzaileak berariaz onartzen du orrialde guzti-guztien edukia.

Data: 20____(e)ko _____ren _____a

Titularraren sinadura _____ Onuradunaren sinadura _____

Triodos Bank NV S.E.



Mikel García-Prieto
Zuzendari Nagusia

TARJETA DE CRÉDITO TRIODOS TXARTELAREN KONTRATURAKO BALDINTZA OROKORRAK

1. **REGULACIÓN.** En caso de aprobación, la presente solicitud tendrá carácter contractual y Tarjeta se registrará por las Condiciones Particulares y Generales estable1. **ARAUTZEA.** Onartuz gero, eskaera honek kontratu izaera izango du, eta txartela kontratu honetan ezarritako baldintza partikular eta orokorrek arautuko dute, bai eta indarrean den Triodos Kontratu Orokoretik aplikagarri denak ere. Txartelaren jaulkitzailea Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsala da (aurrerantzean, «Triodos Bank» edo «bankua»); W0032597G identifikazio fiskaleko kodea du; sozietate helbide hau du: C/ José Echegaray, 5, Parque Empresarial Las Rozas, 28232 Las Rozas, Madrid; Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago: 19.798 liburukia, 0 liburua, 180. folioa, 8. atala, M-348646 orria, 1. inskripzioa; Espainiako Bankuaren ardurapean dagoen Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, 1491 zenbakiarekin. Triodos Bank banketxea Triodos Bank NV sozietate anonimoaren Espainiako sukurtsala da. Sozietate anonimo hori herbeheretar nazionalitatekoa da (sozietate egoitza: Nieuweoordweg 1, P. P. Box 55, 3700 AB Zeist, Herbehereak), baimenduta eta erregistratuta dago Herbehereetako Banku Zentralean, eta erregistratuta dago Utrecht hiriko Merkataritza Ganberan, 30062415 zenbakiarekin. Triodos Banken jarduna Espainiako Bankuak (C/ Alcalá, 48, 28014 Madrid) gainbegiratzen du —likidezia, gardentasun eta interes orokorreko gaietan—, bai eta Baloreen Merkaturako Espainiako Batzordeak (www.cnmv.es) eta Herbehereetako Banku Zentralak ere.

Bankuak, txartelak jaulkitzean, estatuko edo nazioarteko ordainketa sistemetako kide den edo haiei atxikita dagoen erakundetzat jaulkitzen ditu, eta Estatuko nahiz nazioarteko ordainketa sistema edo erakunde horien arauen pean dago. Horrenbestez, txartelen erabilera ordainketa sistema horiek unean-unean ezarrita dutenaren pean dago. Titularrak pertsona juridikoa baldin bada edo, bestela, bere eremu partikularretik at edo bere merkataritza, enpresa nahiz lanbide jardueraren barnean berridazten pertsona fisiko bada, alderdiek hitzartu dute, Ordainketa Zerbitzuen Legea (16/2009 Legea, 2009ko azaroaren 13koa) 17. eta 23. artikuluetan jasotako aukerako araubideari jarraituz, kontratu honi ez zaizkiola aplikagarri lege horretako III. titulua eta 24.1, 25.1 (lehen paragrafoko azken tartekia), 30, 32, 33, 34, 37 eta 45. artikulua, eta horiek aldatu edo garatzen dituzten erregelamenduak. Hitzartu dute, orobat, ez direla aplikagarri 2011ko urriaren 28ko EHA/2899/2011 Agindua (gardentasunari eta banku zerbitzuen erabiltzailea babesteari buruzkoa), III. tituluko II. kapituluaren ezarritakoa izan ezik, eta hura garatzen duen Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra (kreditu entitateei eta ordainketa zerbitzuen hornitzaileei igorria, banku zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateak dakarren erantzukizunari buruzkoa), hamahirugarren arautik hamabosgarrenenaino ezarritakoa izan ezik. Ordainketa zerbitzuei aplikagarri zaizkien baldintza gardentasunari eta informazio betekizunei buruzko 2010eko ekainaren 14ko EHA/1608/2010 aginduan ezarritakoari jarraituz, alderdiek hitzartu dute ez dela aplikagarri izango agindu hori, ez eta aurrez aipatutako arau horiek garatzeko beste edozein arau ere. Titularrak eskubidea izango du txartelari aplikagarri zaizkien kontratu baldintzak edonoz jasotzeko, hogeita batgarren klausulan ezarritakoari jarraituz.

2. **JAULKIPENA ETA TITULARTASUNA.** Txartela bankuaren jabetzakoa da, eta izaera pertsonak eta besterenezinarekin jaulkiko da pertsona fisiko titular baten izenean. Titular horren izenak agertu beharko du erregistratuta haren titulartasuneko txartelean (aurrerantzean, «txartela») bertan. Titularrak, era berean, Triodos kontu korronte elkartua baten («kontu elkartua») titular izan beharko du, eta kontu horretan egingo dira kontratu honetatik eratorritako karguak. Bankuak bere esku gordetzen du txarteln honen jaulkipena —eta, hala egokituz gero, berritzea— onartzeko beharrezko betekizun eta bermeak ezartzeko eskubidea. Bankuari aurrez eskatuta eta bankuak adostasuna emanda, titularrak berak izendatutako beste pertsona baten edo batzuen (onuradunak) izenean txartel gehigarriak jaulkitzea lortu ahalko du. Kontratu honetako baldintzek arautuko dituzte txartel gehigarri horiek. Titularrak bere gain hartzen du onuradunek txartel gehigarriak egoki erabiltzearen ardura. Txartel gehigarriek titularraren txartelaren kontu elkartu bera izango dute. Beraz, titularrak berariaz onartzen ditu txartel gehigarriekin egiten diren eskudiru ateratzeengatik eta transakzioengatik bankuak kontu elkartuan egiten dituen karguak. Txartela eta txartel gehigarriak (elkarrekin, «txartelak») titularraren eta —halakorik bada— onuradunaren eskura jarriko dira, eskura emanez edo postaz bidaliz, bai hasierako jaulkipenean, bai ondorengo berritzeetan.

3. **KONTRATUAREN IRAUPENA ETA TXARTELEN IRAUNGIPENA.** Kontratu honek iraupen mugagabea du. Hala ere, txartelak balioaldi mugatua izango dute, txartelean inprimatuta ageri den hilabeteko azken eguneraino. Alderdietako edozeinek kontratua suntsiarazi ahalko du edonoz, beste alderdiari jakinarazita, kontratu honetako 21. klausulan adierazitakoari jarraituz. Suntsiarazpena gauzatzen den eguna baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago jakinarazi beharko dio, bankuak suntsiarazten badu; eta 24 ordu, titularrak eskatuta suntsiarazten bada. Titularrak eta onuradunek, suntsiarazpena eraginkor bihurtzen den egunean, txartelak bankuari itzuli beharko dizkiote edo birrindu beharko dituzte. Egun hori baino geroago itzultzen edo birrintzen badira, haien kargura egingo dira, itzuli edo birrindu arte, txartel horiek egiten diren transakzioak. kontratua bukatzean, bezeroak egun horretan dagoen zorraren zenbatekoa itzuli beharko du, ordaintzeke dauden komisio eta gastuekin batera. Titularrak betebeharrak horiek betetakoan, kontratua iraungita geratuko da. Txartelaren titularrak kontu elkartua itxi nahi badu, aldi berean txartelak itzuli beharko ditu, eta bankuari itzuli beharko dizkio ordaintzeke dagoen zorraren zenbatekoa (halakorik baldin bada) eta eginda edo ordaintzeke dauden gastuak. Txartelak eta dirua itzultitakoan, kontratua iraungita geratuko da, eta kontu elkartua itxi ahalko da.

4. **ERAGIKETAK.** Bankuaren txartelekin ordainketa zerbitzu hauek egin ahalko dira: txartela onartzen den estatuko edo nazioarteko establezimenduetan ondasunak edo zerbitzuak erostea; dirua ateratzea, bankuak horretarako akordioak dituen kreditu erakundearen kutzazain automatikoen bidez; eta titularraren eta onuradunaren eskura jarrita dauden edo jartzen diren beste zerbitzu batzuk gozatzea. Txartelen eragiketa guztiak kontabilitateko kontu batean (txartelaren kontua) erregistratuko dira. Hor erregistratuko da eragiketa bakoitzaren zenbatekoa, amortizatzen den arte.

5. **IDENTIFIKAZIO ZENBAKI PERTSONALA.** Kutxazain automatikoetan erabilgarri dauden eragiketarako edozein egiteko, bankuak titularrari eta onuradunari identifikazio zenbaki pertsonal bat (PIN) jakinaraziko die, txarteleko bakoitzerako. PINa pertsonala eta besterenezina da (ezin zaie hirugarrenei jakinarazi), eta titularrak nahiz onuradunek aldatu ahalko dute, bankuak ezarritako sistemari jarraituz.

6. **TITULARRAREN BETEBEHARRAK.** Titularrak betebeharrak hauek ditu:

- Kontratu honen babesean egindako txarteletako edozeinekin egindako eragiketa guztiak onartzea.
- Eragiketen eta haien zenbatekoaren frogagiriztat onartzea txarteleko edozeinek erregistratutakoa, bankuaren erregistro informatikoetan eta txartelekin eragiketarako egiteko gaitutako edozein gailuk jaulkitako egiaztagirietan ageri dena, baldin eragiketarako txartelaren titularrak berak, txartel gehigarri titular diren onuradunek edo aurreko horietakoren baten baimena duten hirugarrenek egin badituzte.
- Bankuari jakinaraztea titularrak edo txartelen onuradunek baimendu gabeko edozein transakzioaren kargua, bai eta txartelen funtzionamenduan atzemandako edozein akats edo irregulartasun, bankuak behar bezala zuzen dezan. Horretarako, titularrak berandutze desegokirik gabe egin beharko du jakinarazpen hori, baimendu gabeko karguaren edo behar ez bezala egindako eragiketaren berri dakien bezain laster, eta betiere kargu edo eragiketa horren egunetik hamahiru (13) hilabete igaro baino lehen jakinarazi beharko du, baldin bankuak haren eskura jarri badu horretarako informazioa.
- Txartelaren segurtasuna bermatzeko (txartelaren galera, lapurreta edo faltsutzea saihestea) eta hura erabiltzeko prozeduraren segurtasuna bermatzeko (bereziki, PINa isilpean gordetzea eta txartela sinatzea) beharrezko arretaz jokatzeko. Bereziki, contactless teknologia («kontakturik gabeko teknologia» edo «kontakturik gabeko ordainketak») duten txartelei dagokienez, haiek erabiltzea posible baita, ezartzen diren baldintzetan, txartelaren titularraren identifikazio pertsonalerako bitartekorik sartu beharrik gabe, zorrotz zaindu behar da txartela.
- Txartelaren galera, lapurreta edo faltsutzea eta PINa norberaren borondatearen kontra beste inork jakitea, berandutze desegokirik gabe jakinaraztea, horren berri izan bezain laster. Jakinarazpen hori bankuaren edozein bulegotan egingo da, edo txartelean horretarako ageri den 902 171 272 telefonora deituta. Abisu hori, gero, urgentziatz baiezatuta beharko da posta ziurtatuz edo bankuaren edozein bulegotara etorrira horretarako dokumentua sinatuz.
- Bankuaren txartela itzultzea edo birrintzea, txartela iraungi denean edo ordeztu denean, eta txartela nahiz kontu elkartua blokeatuta edo ezeztatuta geratzen direnean, edozein dela ere kausa.
- Oro har, ondasunak erosteko eta atxikitako establezimenduetan txartelak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko, titularrak hau egin behar du: i) txartela aurkeztu, eta establezimenduak egindako faktura sinatu edo PIN zenbakia tekletatu (egindako eragiketarekin guztiz ados egotea dakar horrek); eta ii) dagokien eragiketa gauzatzearren txartela aurkeztean bere nortasuna egiaztatzea. Triodos Bankek contactless («kontakturik gabeko teknologia» edo «kontakturik gabeko ordainketak»), teknologiazko txartelik jaulkituz gero, alderdiek onartzen dute haien titularraren sinadura autografoaren berdina izango dela, juridikoki, titularrak txartela hurbiltzea kutxazain automatikoetara, saltokiko terminala edo beste kobrantza tresna batzuetara, transakzioa egin dadin. Banca Telefónica edo Banca Internet zerbitzuen bidez egindako eragiketen kasuan, titularrak jarraitu egin beharko die bankuak unean-unean titularraren esku jartzen dituen segurtasun

sun, identifikazio eta autentifikazio prozedurei.

Hala ere, Triodos Bankek eskatu ahaliko ditu titularraren sinadura autografoa, txartelaren gako sekretua (PINa) sartzea, edota hitzartutako beste edozein identifikazio sistema, une bakoitzean eta herrialde bakoitzean contactless teknologiako txartelak erabiltzeari buruz indarrean diren baldintza espezifikoari jarraituz. Eta, betiere, segurtasun arrazoiengatik, txartela erabiltzen ari den titularrak identifikatzeko aurreko bitarteko horietako edozein exijitu ahaliko du bankuak. Era berean, txartelaren titularrak onartzen ditu contactless teknologiako txartelen bidez egindako eragiketa guztiak, bankuak txartelaren titularrak identifikatzeko bitartekorik eskatu gabe egin direnak.

h) Ordaintzeko betebeharrak. Titularrak obligatua da bankuari ordaintzera edozein kontzeptuengatik zor dizkion kopuru guztiak, txartelak jaulki eta erabiltzetik eratorriak, kontratu honen pean ezarritakoari jarraituz. Halaber, titularrak txartelari dagokionez dituen betebeharren artean, aurreko d) atalean g) ataleraino (biak barne) bitartean aipatutakoak onuraduneri ere aplikagarri izango zaizkie (onuraduneri baldin bada), txartel gehigarri dagokienez.

i) Une oro bankuan aski diru izatea, kontratu honetatik eratorritako ordainketa erantzukizunak estaltzeko. Bankuak beretzat gordetzen du txartelaren kontratazioa, haren ondorengo ondoko berritzeak edo kontratuaren suntsiarazpena ondorengo hauek betetzearen baldintzapean jartzea: ezartzen diren betebeharren berme eskakizunak, bezeroak bankuan gordailututako funtsak behar adina izaten irautea, edo emandako kreditua estaltzeko behar adinako bermeak izatea ahalbidetzeko bestelako eskakizunak.

j) Txartelaren mugimenduak kontsultatzea aldian-aldian, gutxienez hilean behin, eta zenbatekoaren edo ezaugarrien aldetik titularrak —edo, halakorik bada, onuradunek— egin ohi dituzten eragiketekin bat ez datozen karguak ikusten diren aldiro.

k) Espainiako lurralde osoan aktibo dagoen telefono mugikorrek zorbaki baten titular izatea, kontratu honen mantentze egokirako beharrezko zerbitzuak jasotzearen; bereziki, txartelarekin egindako eragiketei buruzko alertak eta txartelaren kudeaketari lotutako edozein komunikazio edo mezua.

Titularrak prestasunik handienaz eta lehenbailehen jakinaraziko dio bankuari zorbaki horri loturiko edozein gorabehera, baldin txartelaren erabilera egokia arriskuan jarri badezake.

7. ERANTZUKIZUNETATIK SALBUESTEAK

a) Titularrak salbuetsita dago edozein erantzukizunetatik, txartelen eta PINaren erabilera desegokia dela eta, seigarren baldintzari jarraituz txartelen galera, lapurreta edo faltsutzea jakinarazi duen unetik, edo PIN hori beste inork badakiera jakinarazten duenetik, baldin titularrari dolua edo errua egotz ez badakioke.

b) Bankua —egoki deritzen neurriak hartzeaz gainera— erantzukizunetik salbuetsita geratzen da, baldin ondasunak saltzera edo zerbitzuak egitera hitzartutako saltoki, banku edo kuxtetakoren batek txartelak edozein arreta jartzen ez badio, edo baldin konektatuta dagoen baina bere sarekoak ez diren kuxtzain automatikoetan gorabehera teknikoak edo operatiboak izanez gero, salbu eta bankuaren dolua edo errua laria izan bada.

c) Bankua, orobat, at geratuko da establezimenduaren eta txartelaren titularraren edo (halakorik bada) txartel gehigarrien onuradunen artean egindako eragiketarik eratorritako gorabehera eta erantzukizunetatik.

d) Titularrak txartelak egoki erabili eta kontserbatzearen arduraduna da. Aurrekoaz gainera, titularrak edo onuradunek duten erantzukizuna, txartelaren galera edo lapurreta gertatuz gero hirugarrenek txartela iruzurrez erabili badute, mugatuta geratuko da berrogeita hamar (50) eurora, salbu eta titularraren edo onuradunaren dolua, errua edo zabarkeria baldin badago artean.

e) Bankua ez da erantzule izango baldin bere arazoizko kontrolatik kanpoko inguruabar salbuespeneko eta ezin aurreikusizkoak izanez gero, baldin haien ondorioak saihestezinak izango balira kontrako ahalegin guztiak eginda ere.

Banca Telefónica zerbitzuaren bidez egindako eragiketen frogabidetzat, titularrak eta —halakorik izanez gero— onuradunak edo onuradunek baimena ematen diote bankuari, telefono elkarrizketa eta komunikazio elektronikoko guztien erregistroa mantentzean eta horren euskarri magnetikoa gorde dezan.

Hala ere, Triodos Bank NV, S.E. izango da erantzule, txartelaren titularraren aurrean, ordainketa eragiketa egokiro gauzatzeari, harik eta haren zenbatekoa onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kontuan ordaintzen den arte. Triodos Bank NV, S.E. banketxeari egotzeko den kausarengatik gauzatu ez diren edo akatsarekin gauzatu diren ordainketa eragiketen kasuan, banketxe horrek arrazoirik gabeko atzerapenik gabe itzuliko du eragiketari dagokion kopurua; eta, hala badagokio, ordainketa eragiketa akastuna egin izan ez balitz egon beharko lukeen lehenagoko egoerara berrezarriko du ordainketa kontuaren saldoa.

8. TXARTELAREN MUGAK. Kontratu honen babesean kontratatutako txartelak bakoitzak diru erabilera eragiketa muga batzuk ditu adierazita. Muga horien zenbatekoak ez dira gaituzte behar. Muga horiek baldintza partikularretako «Diru erabilera muga» atalean adierazita daude. Kreditu muga hori alda dezake bankuak, aurrez titularraren kaudimen baldintzak ebaluatuta, eta kontratu honetan ezarritakoarekin bat etorriz. Lehenago, titularrari jakinarazi beharko dio, 17. baldintzan ezarritako prozedurari jarraituz. Titularrak eskatutako kreditu muga hasieran emandakoa baino handiagoa denetan, erantzukizunaren handitzea estaltzeko behar den berme handitzea eskatu ahaliko du bankuak.

Egindako eragiketengatik kontuan dagoen zorra titularrak amortizatzen duen neurrian, saldo erabilgarria berrezarriko da. Titularrak bankuari baimena ematen dio, egindako transakzioetatik eratorritako ordainketei erantzun diezaien, baita emandako kreditu muga gaituzte bada ere. Kreditu mugatik gaituzte edo kreditu muga horren barruan zor den kopururik baldin bada eta behar zen ordainketa egunean pagatu ez badira, ez da ordainketa geroratuaren aukerarik izango kreditu muga gaituzte duen edo behar zen egunean ordaindu gabe dagoen zenbatekoari dagokionez, salbu eta alderdien arteko akordioak baldin bada. Zenbateko hori bankuak gaituzteko du gaituzte berri duen unetik, eta osorik ordaindu beharko da hurrengo ordainketa egunean. Halakoetan, baldintza partikularretan ezarritako komisioa aplikatuko zaio titularrari (txartelean gaituztekoagatik edo ordainagiri ordaindugabeagatik). Komisio hori kontuan kargatuko da kreditu mugatik gaituztekoan edo ordainagiri ez ordaindutakoan, eta zorra ordaintzea lortzearen bankuak titularrarekin kudeaketa pertsonalizatuak egin eta gero. Kuxtzain automatikoetatik eskudirua ateratzeko, titularrak edo onuradunek ezin gaituzteko dute eguneko muga eraginkortzat ezarritako gehieneko zenbatekoa. Zenbateko hori zein den baldintza partikularretan ezartzen da.

9. DIRU ITZULKETA. Unean-unean erabili den saldotzat definitzen da. Hauen arteko batura barne hartzen du: (i) itzultzeke dauden eragiketak, gehi (ii) ordaintzeke dauden komisio eta interesak. Titularrak saldo erabiltzat bankuari zor dizkion kopuruak, bankuak hileren esku jartzen duen laburpenean islatuak, kargu egunean, eta horrek lehenengo enpresa-hilero eguna izango da, ordainduko dira, egindako eragiketak likidatzeko unean bankuak aukeran jarritako ordainketa sistemen artean titularrak edo haren onuradunek aukeratutako sistemari jarraituz. Ondorengo sistema hauetako bat izango da:

a) Eskudirutan ordaintzeko sistema. Horren bitartez, titularrak zenbateko osoa ordaintzen du hitzartutako kargu egunean.

b) Gerorata ordaintzeko sistema. Horren bitartez, titularrak zorraren ordainketa osoa edo zati bat geroratzen du, eta aldian-aldian amortizatzen du, ondorengo hauen artean aukeratu duen modalitateari jarraituz, eta kontratu honetako baldintza partikularretan finkatutako hileroko gutxieneko eta gehieneko zenbatekoekin:

(i) dela erabilitako saldoaren ehuneko jakin bat ordaintzea (geroratu ehuneko). Bankuak hileroko kargu bat egingo du. Kargu horretan sartuta daude, erabilitako saldoari hitzartutako ehuneko aplikatuz ateratzen den zenbatekoarekin batera, hilean sortutako interes eta komisioak.

(ii) dela hileroko zenbateko finkotzat (geroratu finkoa). Hilero kontu elkartuan zorbetuko da hitzartutako zenbateko finkoa. Zenbateko horretan sartuta egongo dira hil horretan sortutako interes eta komisioak.

(iii) bankuak establezimenduen hitzartzen duen erosketara sistema pertsonalizatua erabiliz. Horren bitartez, titularrak erosketara eragiketa bakoitzerako aukeratu ahaliko du egin nahi duen ordainketaren geroratzea.

Ordainketa geroratuaren zerbitzua erabiltzeak geroratze interesak sortuko ditu bankuaren alde, baldintza partikularretan hitzartutako tasa nominalen. Kopuru geroratuen interesak hileren amaieran likidatzen dira, eta formula honekin kalkulatu dira: $\text{Interesak} = \frac{cd \times n \times i}{3000}$, non «cd» kopurua geroratu zaien eragiketetan ordaintzeke dagoen saldoa baita; «n» 31 baita; eta «i» aplikatu beharreko hileroko interes tasa baita, bateko hainbatean. Ordaintzeke dagoen zorra —bankuak eskura jarritako laburpenean hileroko islatua— ordaintzeko bere betebeharrak bete dezan, titularrak diru kopuru egokia izan beharko du kontuan, zenbatekoa zorbetzearen laburpenean adierazitako muga eguna baino lehen. Bankuak titularrari eman ahaliko dizkio erabilitako kreditua ordaintzeko geroratzeak, une jakin batzuetan eta aldi zehaztuetakoa. Gainera, kopuru horiek interesak sortuko dituzte, hitzartutako tasan, ordainketa geroratzeak irauten duen aldiari; bai eta baldintza partikularretan ordainketa geroratzerako ezarritako komisioa ere. Aipatu geroratzeak ondorengo baldintza hauek aplikatuz finkatuko dira:

a) Interesen likidazioa kontratu honetan ezarritakoari jarraituz egingo da, eta haren ordainketa hitzartuari jarraituz dagokion lehen hilean gauzatu da; edo, bestela, emandako ordainketa geroratzearen aldia bukatutakoan.

b) Titularrak egunean izan beharko ditu kontratu honen arabera dagozkion ordainketak, likidazioak egiteko unean.

c) Geroratzearen aldiaren amortizatu beharreko saldo erabiliaren zenbatekoa amortizatu gabekotzat mantentzen da, eta, beraz, kontuan hartuko da hurrengo likidazioan.

Gainera, titularrak zor duen zenbatekoa edonoz aurrez itzuli ahal du, osorik edo zati batean. Halakoetan, eskubidea izango du kredituaren kostu osoa murriztea, oraindik igaro ez den kontratualdia dagozkion interesak eta kostuak barne hartuta, baita horiek dagoeneko ordaindu badira ere. Amortizazio aurreratu hori egiteko, titularrak bere asmoa jakinarazi beharko dio banketxeari, 21. klausulan adierazitako bitartekoak erabiliz, bankuak jakinaraz diezaioten dirua itzultzeko jarraitu beharreko urratsak. Aldez aurreko diru itzulketa eginda, eta kredituaren bizialdi osoan, titularrak eskubidea du dohainik eskatzea kontu laburpen bat, amortizazio koadroaren erakoa.

10. URTEKO TASA BALIOKIDEA (UTB). Titularra kontsumitzaile bat den kreditu txartelen kasuan, urteko tasa baliokidea kalkulatzeko erabili da Kontsumorako Kredituko Kontratuen Legeko (16/2011 Legea, 2011ko ekainaren 24koa; BOE, 151. zenbakia) I. eranskineko 32. artikuluan jasotako formula; eta Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra (kreditu entitateei eta ordainketa zerbitzuen hornitzaileei igorria, banku zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateak dakarren erantzukizunari buruzkoa; BOE, 161. zenbakia). Kontuan hartuko dira eta aplikatuko dira unean-unean indarrean den araudiari geroztik egindako aldaketak. UTB kalkulatzeko, hipotesi hauek erabili dira: i) titularrak berehala erabili duela baldintza partikularretan ezarritako kreditu muga osoa; ii) kreditua hileko 12 kuota berdinetan itzuliko dela, erabili den datatik hasita, eta azken ordainketarekin kapitala, interesak eta komisioak kitzatzen direla; iii) aldi osoan hitzartutako interes tasa mantentzen dela, bai eta baldintza partikularretan ezarritako gainerako baldintzak ere; iv) denboraren zenbaketa oinarria urtebete (365 egun) dela; v) eta kreditua indarrean mantentzen dela hitzartutako aldiaren, eta alderdiek betetzen dituztela kontratuan ezarritako betebeharrak.

11. ATZERRIAN ERABILTZEA. Txartelak atzerrian erabiltzetik eratorritako zenbatekoak kargatzeko, transakzioaren jatorrizko herrialdeko dibisatik eurorako trukea aplikatuko da; hain zuzen, bankuak eragiketaren zenbatekoa ordaintzen duen egunari dagokion trukea.

Bankuak eragiketa mota horretarako ezarritako komisioak gehituko zaizkio truke tasari. Kontratu hau sinatzeko ekitaldian titularraren eskura dagoen Tarifen, Komisioen, Balioztatze Baldintzen eta Gastu Jasandarazgarrien Liburuan adierazitako moduan aplikatuko dira komisio horiek. Titularrak eta —halakorik bada— onuradunak edo onuradunek, betiere, indarrean den araudia bete beharko dute, atzerrian egindako gastuei buruz diru agintaritzek finkatutako mugei dagokionez; bai eta trukeen kontrolari buruz indarrean den araubidea ere. Bankuak ez du erantzukizunik izango arlo horietan izan daitekeen edozein ez-betetzerean gainean. Titularrak edo onuradunek atzerriara edo atzerrian egindako gastuak edo ordainketak justifikatu behar dizkiete hala eskatzen dieten agintariei, eta bankuak ez du horren gaineko betebeharrak izango.

Titularrak onartzen du eragiketa gauzatzen den data eta dagokion oharpenean jasotzen den data bat bera ez izatea batzuetan, txartelaren sistema eragilearen funtzionamenduaren beraren ondorioz.

12. LABURPENAK BIDALTZEA. Bankuak txartelaren titularraren eta onuradunen eskura jarriko ditu aurreko informazioa itxi zenetik egindako eragiketen laburpena eta ordaintzeke dagoen saldoa, titularrari euskarri iraunkorrean biltzeko eta mantentzeko aukera ematen dioten bitarteko edota formatu elektronikoen bidez, eta, une horretatik aurrera, laburpenean adierazten den kopuruaren kargua egin ahal izango du, titularrarekin adostutako ordainketa moduari jarraituz.

Informazio horiek bidaltzen diren egunetik hogeita hamar (30) egun naturaleko epean ez bada titularraren erreklamazio idatzirik jasotzen laburpenaren edukiri buruz, adierazitako laburpenarekin ados daudela ulertuko da. Aitzitik, titularrak edota onuradunek erreklamazio bat egiten badute, eta akats bat egon dela egiaztatzen bada, idazpen okerrak zuzendu egingo dira, eta kargua egin den balorazio data jarriko zaie.

13. TXARTELEN SALDOAREN GALDAGARRITASUNA. Titularra obligatua da bankuari ordaintzera edozein kontzepturengatik zor dizkion kopuru guztiak, txartelaren eta txartel gehigarrien jaulkitzeari, diru-ateratzei eta erabiltzeari dagokionez.

Eskudirutan itzultzeko sisteman zorraren zenbateko osoa ordaindu ezean, edo hileko hiru kuota —ondoz ondokoak izan nahiz ez izan— ordaindu ezean, bankuak berehala galdagarritzat jo ahal izango ditu txartelaren saldo osoa eta titularrak zor dituen kopuru guztiak, kontratu honetan hitzarturikoarekin bat. Kontratugileek berriaz adosten dute erreklamaturiko kopuruaren frogua nahikoa izango dela bankuak, dagokion likidazioa egin ondoren, jaulkitzen duen ziurtagiria, saldoa adierazteko, txartelaren kontuan adierazten den moduan. Horrela zehazturiko saldo zorduna kopuru likido eta galdagarritzat joko da ordainketa ondorioetarako, eta erabateko eraginkortasun juridikoa aitortzen zaio, aurrez. Bankuak zorraren erreklamazioa judiziala egiteko, nahikoa izango dira aurreko paragrafoa deskribatzen den ziurtagiria eta kontratuaren ale bat.

14. KONPENTSAZIOA. Bankuak kontratu honetatik ondorioztatutako obligazioak betetzea galda dezakeenean, aukera hauek izango ditu: (i) bankuak titularraren izenean —haren izenean bakarrik edo hirugarrenekin solidarioki edo mankomunatuta— irekitako kontu korrante, aurrezki kontu edo bestelako gordailuetako saldoak erabili ahal izango ditu; (ii) kontratu honetatik eratorritako obligazioak edo titularrak bankuarekin dituen obligazioak ordaintzean jasotzen dituen kopuruak egotzi ahal izango ditu, nahiz eta, ordainketa egitean, bankuak gerora egiten duenaz desberdina den egotea egin; eta (iii) kontratu honetan aurreikusituen diren printzipalaren, interesen, komisioen eta gastuen ordainketan berandutzerik izanez gero, bankuan titularraren izenean gordailututako balore edo ziurtagiriari onenean saldu ahal izango ditu. Hartarako, behar adina dokumentu sinatu ahal du bankuak, eta lortutako zenbatekoa kontratu hau dela-eta sortutako zor guztiak osorik edo partzialki kitzatzeari aplikatuko zaio, baldin eta, bankuak titularrari salmenta hori egiteko asmoa jakinarazi ondoren, ondorengo hiru (3) egun balioudunetan titularrak edo onuradunek ez badituzte osoki ordaintzen dagozkien betebeharrak guztiak, kontratu honekin bat. Epe horretan, balio edo ziurtagiri horien gaineko atxikipen eskubidea izango du bankuak. Titularrak Bankuarekin dituen posizio hartzekodunak —haien izaera edozein dela ere— posizio zordunak bermatzen ditu. Berme horren barruan biltzen dira, hala dagokionean, kontratuaren titular guztiak eta haien posizio guztiak, baita hirugarrenekin era mankomunatuan edo solidarioan izan ditzaketan ere.

15. EZ ORDAINTZEAREN ONDORIOAK. BERANDUTZE INTERESAK. Txartela erabiltzearen ondorioz bankuari zor zaizkion kopuruaren kasuan —finkaturiko epean ordaindu ez diren gastu eta komisioak barne—, kontratu honen baldintza partikularretan ezarritako berandutze interes nominala aplikatuko du bankuak, eta interes arrunten gisa likidatu ahal izango da. Gainera, bankuak kontratu hau suntsiarazteko eskubidea izango du.

Ordainagiri ordaindugaberik izanez gero, titularrari aplikatuko zaio baldintza partikularretan ezarritako ordainagiri ordaindugabearen komisioa. Komisio hori aplikatu baino lehen, zorra ordaintzea lortzeko errekerimenduak eta kudeaketa pertsonalizatuak egingo zaizkio titularrari. Era berean, titularrak ordainketa betebeharrak betetzen ez baditu, haren datuak ondare kaudimeneko eta kredituko fitxategiei jakinarazi ahalduko zaizkie, baldintza orokor hauetako «Datu pertsonalak babestea» atalean eta indarrean den araudian ezarritakoari jarraituz.

16. KOMISIOAK ETA GASTUAK. Kontratu honetako baldintza partikularretan ageri diren komisio eta gastuak aplikatuko dira, ondorengo baldintza hauei eta bankuaren Tarifa eta Komisioen Liburuan ezarritakoei jarraituz:

- Jaulkitze edota mantentzearen komisioa. Txartela irekitzearen egunean eta ondoz ondoko urteurrenetan kobratuko da.
- Eskudirua ateratzearren komisioa. Ateratako eskudirua zenbatekoarekin batera edo egindako hurrengo likidazioan zordunduko da komisioa.
- Txartelean gaintzearen komisioa. Gaintutako kopuruaren gainean kobratuko da.
- Ordainagiri ordaindugabearen komisioa. Zordun saldoa judizioz kanpo erreklamatzearren gastuengatik bankua konpentsatzeko aplikatuko da.
- Txartelaren kopia egitearen komisioa. Kopia eskatzen den egunean kobratuko da.
- Dibisa trukearen komisioa. Dagokion kitapena egiten den datan ordainketa sistemek lortu duten trukearen arabera dibisetan egindako transakzioen euroen kontrabaliotik ateratzen den zenbatekoaren gainean kobratuko da.
- Ordainketa geroratu duten txartelaren aurrez amortizatzearen konpentsazioa. Komisio hori kobratuko da, baldin bezeroak aldez aurretik kitzatzea erabakitzen badu, ordaintzeke dauden kuota zenbatekoa muga egunaren aurretik ordainduta.
- Ordainketaren geroratzea kudeatzearen komisioa. Hilaren bukaerako ordainketa osoa duen txartela duten bezeroei aplikatzen zaie, baldin beren txartelean ordaintzeke dagoen saldoaren edo eragiketa zehatzen ordainketa zenbait hilabetetara geroratzeke aukera hartzearen bankuak egiten dizkien unean uneko

Azkenik, Banco-k aipatu du Datu-Babes-Ordezkarria, Titularra bere helbide elektronikoaren bidez datu pertsonalen tratamenduari buruzko edozein kontutarako harremanetan jarri ahal izango dena: protecciondedatos@triodos.es. Titularrak datu-babesa www.triodos.es-etako Pribatutasun Adierazpeneko Bankuaren politikaren ganean, eta Triodoak Kontratu Osoaren Datu-Babeseko Klausulan informazio gehiago aurki dezake.

21. EZ GAUZAZTEA EDO GAUZATZE AKASTUNA. Triodos Bank NV, S.E. izango da erantzule, txartelaren titularraren aurrean, ordainketa eragiketa egokiro gauzatzeari, hari eta haren zenbatekoa onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kontuan ordaintzen den arte. Triodos Bank NV, S.E. baldin bada, arrazoirik gabeko atzerapenik gabe txartelaren titularrari itzuliko dio eragiketari dagokion kopurua; eta, hala badagokio, ordainketa eragiketa akastuna egin izan ez balitz egon beharko lukeen lehenagoko egoerara berrezarriko du ordainketa kontuaren saldoa. Betiere, txartelaren titularretik datorren ordainketa agindua ez bada gauzatzen edo akatsarekin gauzatzen bada, Triodos Bank NV, S.E. saiaturiko da berehala jakiten, aurrez eskatuta eta atal honetan ezarritako irjarrituz duen erantzukizuna gorabehera, ordainketa eragiketari dagozkion datuak, eta agindu-emaileari jakinaraziko dizkio emaitzak.

22. KOMUNIKAZIOAK ETA JAKINARAZPENAK. Alderdiek elkari egin beharreko komunikazio guztiak, honela egingo ditu titularrak: i) helbide honetara idatziz: Triodos Bank N.V., S.E., C/ José Echegaray, 5, Las Rozas de Madrid, 28232 Madrid; ii) telefonoz, ondorengo zenbaki hauetako edozeinetara deituta: 916404684 edo 902360940. Eta bankuak honela egingo ditu: titularrak emandako bizilekuko edota posta elektronikoko helbidera, bai eta titularrak banketxearen webgunean (www.triodos.es) duen postontzi pertsonalera ere. Kontratu honen baliozkotasunaren ondorioetarako, egoki suertatzen diren jakinarazpen, errekerimendu eta eginbideetarako, alderdiek baliozko helbidetzat adierazten dituzte titularrarekin sinatutako baldintza partikularretan bakoitzarentzat ageri direnak. Bereziki, titularrak berariazko baimena ematen dio bankuari, jakinarazpen horiek egin ditzan bide fidagarri, auditagarri eta erakunde jakinarazletik independente bat erabiliz, edo bide ziurtatuz, dela paperezko postaz, dela posta elektronikoz, kontratu honetan adierazitako bizilekura, helbide elektronikora edo telefono mugikorreko zenbakira.

23. KREDITUA LAGATZEA. Titularrak berariaz ahalmena ematen dio bankuari, kontratu honetatik ondorioztatutako kreditua hirugarren bati lagatzeko. Hirugarren horrek bere gain hartuko du titularrarekiko hartzekodun posizioa. Lagatze horretan, bete beharrekoa izango da Merkataritza Kodeko 347. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa, eta Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoa, titularrari lagapena komunikatzeari dagokionez.

24. LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA NAHIZ ESKUMENA. Kontratu hau Espainiako legeek arautuko dute, eta alderdiek men egiten diete legedi aplikagarriari jarraituz dagozkien epaitegi eta auzitegiei. Kontratu dokumentua gaztelaniaz egin da, edo bezeroak aukeratutako nazio lurraldearen zati bateko hizkuntza ofizialean. Hala ere, hizkuntza araudi berezia duten autonomia erkidegoetan, baldin haietan bankuak jendearentzat irekitako bulegoak baditu, hizkuntza eskubideei buruzko autonomia arauak errespetatuko dira, bereziki bezeroekiko komunikazioei dagokienez.

25. KONTRATAZIOAREN BALDINTZA OROKORRAK. Alderdiak bat datoz kontratu honetan jasotako aurreko baldintzak —berariaz baldintza partikularizat kalifikatuak izan ezik— kontratazioaren baldintza orokortzat hartu behar direla, Kontratazio Baldintza Orokorre buruzko 1998ko apirilaren 13ko 7/1998 Legean adierazitako ondorioetarako. Baldintza horiek kontratu honen barrukotzat hartzen dira, titularrak eta —halakorik bada— onuradunek berariaz ulertu eta onartu dituztelako, atxikiak diren aldetik; alde aurretik horiek badirela berariaz jakinarazi die bankuak, hartaratazileak diren aldetik.

26. BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA. KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK. Bankuak badu Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, eta hari dagokio bankuaren bezeroen kexa eta erreklamazioei irtenbidea ematea, gehienez ere bi hilabetean. Bezeroak zerbitzu horri aurkeztu beharko dizkio bere kexa eta erreklamazioak, Espainiako Bankuaren Merkatu Jokabideko eta Erreklamazioetako Sailean erreklamazioa aurkeztu baino lehen. Bankuak badu Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren arautegi bat, eta haren helburua da bai zerbitzua, bai kexa nahiz erreklamazioak aurkeztu, artatu eta ebazteko modua arautzea. Araudi hori eskuragarri dute bezeroek bankuaren webgunean eta bulego guztietan. Kexa eta erreklamazioak idatziz aurkeztu behar dira, bide hauetatik: bankuaren bulegoetan; helbide egokira (Triodos Bank N.V., S.E., C/ José Echegaray, 5, 28232 Las Rozas, Madrid) papereko posta bidalita; edo reclamaciones@triodos.es helbide elektronikora bidalita.

27. KAPITAL ZURITZEAREN PREBENTZIOAREN ARAUDIA. Bezeroari jakinarazi zaizkio erakundeari dagozkion betebeharrak, kapital zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen arloan indarrean den arudiari dagokionez (bezeroa identifikatzea, eta benetako titulartasuna, jarduera ekonomikoa eta diruen jatorria jakitea direla eta), bai eta negozio harremana ezagutzeari eta etengabe jarraitzeari dagokionez beharrezko prestasuneko neurriak aplikatu beharra ere. Horrenbestez, bezeroa behartuta dago bankuari aurreko betebeharrak betetzetik ondorioztatzen diren informazio eta dokumentazio oro ematera. Eskakizun horiek ez betetzeak berekin ekar dezake bezeroarekiko negozio harremana suntsiaraztea, bai eta, hala egokituz gero, agindu jakin batzuk ez gauzatea ere. Horri dagokionez, bezeroak onartzen ditu ondorengo betebeharrak, neurri eta baimen hauek, kapital zuritzearen arauditik ondorioztatutakoak:

- Bezeroak onartzen du ezen, identifikazioari, benetako titulartasunari edo diruen jatorriari buruzko dokumentu eskakizunei behar bezala erantzuten ez badie, edo bezeroak egindako eragiketetatik eratorrita zuritze araudiari lotutako arriskuak nabari badira, bankuak haren kontuen eragiketak blokeatu ahalko dituela, eta kontratatuta dituen produktu kontratuak ezetzatu ahalko dituela.
- Triodos Bank NV SE bankuak bezeroaren berariazko baimena du, edozein erakunde publiko nahiz pribaturi bezeroaren jarduerari edo nortasunari buruzko informazioa eskatzeko.
- Bezeroak bere gain hartzen du, bankuak hala eskatuz gero, bizi fedea edo antzeko dokumentua aurkezteko betebeharra, edo bankuaren bulegoetako batean aurkeztekoa, bere nortasuna eta bizirik dagoela baieztatzearen.